



Legorretatik Beasaina festatik festara

Arg.: M. Albisu

Argazkigintza digitala

ARGAZKI BERRITZE ETA MANIPULAZIOA

FONDOAK KENDU • ARGAZKI MONTAIK • KOLORE ETA ZURI/BELTZA NAHASTU

FOTOETXE

Nafarroa Etorb., 25 BEASAIN

FOTO Goen

Nagusia, 6 ORDIZIA

*Seriotasuna, profesionaltasuna eta aukera
ezberdinak aurkitu nahi badituzu*

ORLEGI

Elikadura Naturala eta Belardenda

Nafarroa Etorbidea, 5

Kale Nagusia, 11


☎ 943 162110

BEASAIN

Jai zoriontsuak guztioi!

MEDIKU ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

- Txaro del Teso: NATUROPATA
- Esteban Rodriguez: MEDIKUNTZA HOLISTIKOA
- Jesus Huarte: MEDIKUA (elk. zenb. 3.840)
- Rosa Monge: DIETISTA
- Rufino Murgia: MASAIAIA - OSTEOPATA
- M^a Jose Gonzalez: MASAIAIA - AKUPUNTOREA



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Festak ondo pasa!



**Diseinuak
Proiektuak
Erreformak**

*Maila gorena bilatzen
dutenentzat toki egokia!*

**Tfnoa.: 88 54 66
Zelaeta, 1**

**Faxa: 16 19 75
BEASAIN**

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
 (Postetxe gainean)
 124 posta-kutxa
 20240 Ordizia
 Tfnoa: 88 96 12
 Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
 Ane Martin, Loinaz Agirre eta
 Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
 kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
 Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
 Edurne Albizu, Aitor Arrue, Josune
 Amondarain, Nagore Goiburu,
 Pako Zubeldia, Aitziber Murua,
 Josune Aldabe, Igor Aristegi,
 Ekaitz Goikoetxea, Marian Larrea
 eta Nekane Altuna.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
 (Artika - Nafarroa)

Tirada: 6.900 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
 gain hartzen derrigorrez, aldiz-
 karian adierazitako esanen eta
 iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

**Ezin eta Ekitur enpresak sortu dira
 Esparru proiektuaren barruan**

Esparru proiektuaren barruan bi enpresa berri sortu dira Goierriin: Ekitur turismo eta aisialdi enpresa; eta Ezin, 3. eta 4. adineko herritarrei zuzendutako giza osasun enpresa. Guztira 10 lanpostu berri sortu dira.

Eudel, Eskualdetako Garapen Agentzien eta Gipuzkoako Diputazioaren babesean garatutako proiektua da Esparru. Duela urte eta erdi jarri zen martxan. Enplegua sortzeko 17 gune berriei buruz hausnartu eta ondoren gune hauetan oinarritutako lanpostuak sortzea eta dinamizatzea du helburu Esparru proiektuak. Enplegurako gune berriak lau ataletan banatzen ditu: eguneroko zerbitzu arruntak; bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak; kultura eta aisialdirako zerbitzuak; eta ingurugiroaren alorreko zerbitzuak.

Gauzak honela, maiatzaren 11n Goiekiren bulegoetan Guillermo Etxenike Ekonomia Diputatuak, Jon Jauregi Goiekiko lehendakariarekin batera egin zuten proiektuaren aurkezpena, eta bide batez, Goierriin proiektu honen barruan sortu diren bi enpresen aurkezpena. Ekitur eta Ezin dira bi enpresak.

Ekitur aisialdi eta turismo arloko enpresa da. Hiru langile ari dira eta turismo ibilbide gidatuak eskaintzen ditu.

Ezin enpresan 7 langile ari dira. Hirugarren eta lauugarren adineko herritarrei giza eta osasun laguntza eskaintzen die.

Enpresa bakoitzak 2.500.000 pezetako laguntza jaso du Esparru programatik.

BOTA BERTSOA


Joxe Ramon Elortza
 (Goierriko bertso-eskolako ikasle ohia)

Osinalde saria

↔
Doinua: begira jarrita nago bera

Kanporaketak jokatu eta finalistak hortxe dira lagun arteko festa giroan lasai joan Gabirira askoren amets gozoak egi bihurtzen diran kabira aleginaren harira (ber) bertsolaritza itxaropentsu hor dago zuei begira bere zeruan somatzen baitu izar berrien dizdira (ber).

Luzio zana buru zalarik eman zitzaion hasera bertsolari ta bertso zaleak Osinalde elkartera lagun giroan afaldu eta saio on bat entzutera aitzaki txarra ote da? (ber) hasi berriek izan dezaten plazaratzeko aukera indartu eta bultza ditzagun holako zenbait bilera (ber).

**Eusko Jaularitza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Erasoan Ordiziako Gazte Asanbladari!

Gertutik ezagutzen dugu intimitate, mehatxu eta kontrolaren bidez Ertzaintzak gizarte-arengan eta zuzenki gu gazte-ongan, aurrera daraman errepresio bortitza. Gure kontra jotzen dute inongo lotsa eta mugarik gabe, tamalez instituzioen babesarekin.

Etengabe bizi dugu euren "presentzia". Asteburuetan nabarmenagoa bada ere, astean zehar hortxe ditugu beraien uniforme, pistola, porra eta abarretaz baliatuz bortxakeria eta irainak besterik ez dabilkitelarik.

Bart gauen (maiatzak 15) Gaztetxeke zerraila guztiak txikituz, goitik behera den dena miatuz, teilatuan nor daki zeren bila edo ze asmo-kin ibiliz, bideoa lapurtuz eta beraienak ez diren gauzak hankaz gora utziz ibili diren "ezezagun" horiei, hauxe ulertarazi nahi diegu:

Utz gaitzela pakean, nahiz eta Gaztetxea guztion etxea izan, gure ideiak zanpatu, isildu eta bortxakeriaren bidez ezabatu nahian dabil-tzan piztiekin ez dutela lekurik ez Gaztetxean ezta Euskal Herrian ere! Eta errepresio bidea aurrera jarraituta ere ez

gaitzela beldurtu eta ma-kurtaraziko.

Nortzuk izango dira "eza-zagun" horiek? Zer lortu nahi

dute txikizio hauekin? Zeren bila dabilta? Zein asmo di-tuzte?

Ordiziako Gazte Asanblada



Uruguayko irakurleak

Beasaindar bikote bat Argentina eta Uruguayra joan eta bertako Euskal etxeetan, GOIERRITARRA aldizkariarekin eta bere

irakurleekin egin zuten topo. Uruguayn argazkia atera zuten elkarrekin. Eskuminak lerro hauetatik Amerika aldera.

APURKA
OIHALAK KILOKA

Jai zoriontsuak!

Jantziak neurrira (heldu eta haurrentzat)
Baita moztu eta probatu ere

San Inazio, 6 - A ☎ 943 889010 BEASAIN

JUANITA ARANBURU
OINETAKOAK

Gizon, emakume eta haurrentzako
oinetakoak

Festa onak pasatu!

Kale Nagusia, 36

☎ 943 88 01 27 BEASAIN

LARRAITZ

Lurrindegia
Opari gaiak

Oriamendi Kalea & 88 33 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

Argitarapen honen edizioak uguntzale.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA

Hamairu hilotz lurgainean

Argiaren amaigabeko ihintz trinko iluminatuak kanutoaren ke urdin suharrezkoa irensten du, gordin-tasun hauskara emeki difuminatuz, oraindik behinik behin itzal oldarkorren paradisu den honetan. Ilunbearen anonimotasun urraezinean, argi bortitzen joan-etorriak neurrigabe estimulatzen du ene burmuina. Musikaren danbateko ozenen baitan ezinbestean mugitzen da nire garai bateko gorputz hieratikoa. Gora! Behera! Doa!, Doa! Behera! Gora!. Etenbako jauzi, txalo, eta mugimenduek damaidate niri poza, zoriona. Estasi mistikora naramate abiadura bizian. Klimaxaren gailurrean jainko ahalguztidunak, pantokratorrak, ferekatzen nau amoltsuki, nigan plazerrezko eiakulazio geldiezina eraginez. Ez dadila sekula amaitu izerdi, malko, odol eta bizi-poz hazien isurketa. Hegalak zabaldu eta gorantz egiteko gai naiz. Ustekabea, nire zorionaren osagarritzat, neska gazte bat hurreratu da nire albora. Iluntasunak erabat itsutzen nauen arren, aldamenen dudak itzala aintzat hartuz neskatiaren edertasun xalo mugagabea itxuratu dut erretinan. Eki morearen izpiek urte zurizko hilgora islatzen dute, marfil eta esmeraldazko hortzen hilgora. Bat-batean, ene gorputz bero izerdituaren gainean, neskaren esku leun, samurra nabari dut irristan, bizkaralde eta ipurmasaila bigunki lastantzen didan heinean. Burua astiro-astiro jiratu eta zera esan diot ezteki: "zu bezalako neska bat behar dut nire baserritar geneak klonatu eta kultura zaharra berpizteko"... Akabo. Jadanik egunsentia behar du izan. Eguzki goiztiarraren errainu mengelek azalezko errezela gailendu dute, nire erretina lokartua esnaraziz. Errealitatera amildu aurretik Morfeoren azken mezuak asaldatzen nau: "gaurkoa egun berezia izango duk". Baliteke. Betazalak behar hainbat irekiko ditut, ene begiek zorioneko egunaren lilura hauteman dezaten. Kaka. Gaurkoan zer ikusiko eta zera, egunerokoa baino ez. Burugaineko sapai zuri inmakulatuak lekuko isilaren irmotasun irainkorra dager beti lez. Egunero bezala, lekuko isilaren sostengu diren lau horma zurrunez nire hats trakets, neketsuaren hotsa neurrigabe anplifikatzen dute, berau pairaezin bilakatuz. Kaleko argia lautan zatitzen dute leihoko barrote herdoilduek, estantziari legez dagokion iluminazioa doilorki bereganatuz. Leihoaz bestaldeko ordeak magalean izan ohi dituen mendi eta haranetan baserri eta arto aleen pozkirak itxarongo didalakoa, infinitoan ezarri dut ene soa. Nireak egin du. Abiadura handian atsekabe eta nahigabeak eritu nau, bakardadearen begiez burdin beltzezko hilobiak baino ezin baititut begitandu. Hamahiru hilotz lurgainean.

Igor Aristegi



Zein plan duzu Loinatz jaietarako?

Eztitxu Amundarain 12 urte, ikaslea beasaindarra



Ondo pasatzeko asmoa daukat. Kanean ibili eta barraketa-ra joango naiz koadrilakoekin. Nahiko barraka onak ekarri dituzte. Lanperna izena dauka nire koadrilak.

Xabier Sacristan 11 urte, ikaslea beasaindarra

Barraketan ibiliko naiz, batez ere lagunekin. Umeen danborradan danborra jotzen aterako naiz.



Igor Urzelai 14 urte, ikaslea beasaindarra



Etxera berandu joateko asmoa daukat. Ahal den denbora gehiena kanean pasatuko dut lagunekin. Ahal izanez gero, Mariren jaitsieran dantza egingo dut.

Bai Pub Bai
Jai zoriontsuak!
BEASAIN

BAREA TABERNA
Zaldizurreta z/g 943 16 19 51
BEASAIN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
943 88 77 58 943 88 72 79 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

M-18
Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikulak
Nagusia, 13 Sta. Maria, 15
BEASAIN ORDIZIA



J. MUJICA Harategia

Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etxea ☎ 943 16 06 02
ORDIZIA



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

Nagusia, 3
☎ 943 88 92 10
BEASAIN



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta.
Karta 2.000 pzta batz besta

MANDUBIKO BENTA jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73

BEASAINGO LOINATZ JAIK



BEASAINGO UDALA

Agurra:

Lanordu ugari eta ilusio izugarria behar izan dira aldizkari honetan duzun jai egitaraua zuregana iritsi ahal izateko. Horiek eta Udalaren eta herriko erakunde herrikoi, ekarte, gazte eta banaka etorri den jende-multzoaren artean egon den harmonia onak, Loinatz jaiek izan behar duten kutsu herrikoia badutela pentsatzera garamatzate.

Elkarlana eta partaidetza zabalkiro izan direla ikusita, Alkate legez poza eta harrotasuna sentitu baino ez ditut egiten.

Ezin ditut ahaztu bestalde, edozein arrazoiengatik gurekin batera egun horiek gozatuko ez dituzten beasaindarrak, eta orrialde honetatik nire gogoramenik maitakorrena eskaintzen diet guztiei.

Beraz, gauza bakarra gelditzen zaigu, hots, herritarrok eta kanpo-herrietatik hurbilduko zareten guztiok, Loinatz Jai hauetako ospakizunak eta ekitaldiak atseginez har ditzazuela, eta, batez ere, dibertsio osasuntsu eta harmoniatsuen izpirituz goza ditzazuela opa izatea.

Jon Jauregi Bereziartua
Beasaingo Alkatea



ZINEA

ORDIZIA:

'El hombre de la máscara de hierro'. Ostirala 22: 22:15; larunbata 23: 19:30 - 22:15; igandea 24: 19:30 - 22:15. astelehena 25: 19:30.

Zinea Euskaraz Ordizian:

'Anna Anna'. Igandea 24: 16:45.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Maiatzak 26, Felipe Uriarteren 'Alegiazko Lurralde bat' ikusentzunezkoa, Maizpiden, 21:00etan.

Maiatzak 27, Migel Angel Otxoa eta Batis Goikotxearen 'Hiru handietako eski-zeharkaldia' ikusentzunezkoa, Maizpiden, 21:00etan.

Ekainak 3, Javier Fernandez 'Gredosko mendilerroa' ikusentzunezkoa, Maizpiden, 21:00etan.

MUSIKA

ORDIZIA

Maiatzak 22, Luis Gil eta Pello Ramirezen esku-tik, kafe-kontzertua, Barrenan, 22:30ean.

ANTZERKIA

GABIRIA

Maiatzak 24, Goaz antzerki taldearen 'Gure bu-ruari, kuku!' antzeslana, Parrokiako antzokian, 17:00etan.

ORDIZIA

Maiatzak 29, 'La cebra enamorada' eta 'Contigo en la distancia' antzeslana, Pilar Guerra, Ritxar Zumalabe eta Xebe Diezen eskutik, Barrenan, 22:30ean.

BERTSOAK

GABIRIA:

Maiatzak 23, Osinalde bertso sariketa 21:00etan, Osinalde elkartearen. Finalistak: Nahikari Gabilondo, Oihane Perea, Amaia Agi-re, Alfontso Jimenez, Aritz Zerain eta Leire Ostolaza.

MENDI-IRTEERAK

Idiazabalgo mendizaleak:

Maiatzak 30-31, Bida-rrai-Irubelakaskoa.

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 23: Irurtzun-San Migel-Ordizia.

Maiatzak 31, Txindoki-Uzkoiti.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Neska bat behar da etxea osatzeko Leioako Unibertsitatetik oso gertu. Oinez 15 minutu. Leku la-saia. 943.888145. Leire.

☐ Goierriin pisu bat har-tuko genuke alokairuan le-henbailehen. 919-475374.

☐ Peugeot 505 GTI sal-

☐ Pitt-bull txakurkumeak salgai, Pantxo eta Patrick odolekoak. 50.000 peze-tan. 943-79 37 17.

☐ Bi katu siames oparit-zen dira, urtebetekoak, arra eta emea. 943-672613. Maria Luisa.

☐ Pigin eskusoinua sal-gai. 120 baju. 100.000 pe-zetan. 943-88 22 96. Gaez deitu.

Salerosketak:

☐ Vaillant berogailua sal-gai. SS-3100-X, urdin ilun metalizatua. 125.000 pe-zetan (negoziagarriak). 919-47 53 74.

☐ Txakurkumea salgai (98-3-lean jaioa). Ama, Braco alemana pedegreea-rekin. Aita, Braco aleman-frantzesa. Euskadiko az-pitxapelduna oilagorretan. 80 01 08.

☐ Vaillant berogailua sal-gai. Modu onean, Berria. 10 litrokoa. 88 99 32.

☐ 486 ordenagailua sal-gai, 16 Mb-eko memoria, 850 Mb-eko disko gogorra eta 8X-ko Cd-Rom unitate batekin. 943-65 29 95.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Maiatzak 23-24: Cuesta (Nafarroa Etorb., 39-Beasain). 943-88 05 87.

Maiatzak 30-31: Jauregi (Santa Maria, 2, - Ordizia). 943-16 09 49.

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa: ☎ 943 16 01 20
Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

ASTI PUB

Jai zoriontsuak!

Zaldizurreta kalea
☎ 943 88 45 06 **BEASAIN**

ELKARTASUN DENDA



☎ 843 88 52 05
Kale Nagusia, 14 **BEASAIN**



Andoni Antxia,
Arrate Izaguirre
eta Joxe Arotzena
(HBko zinegotziak)

*“Jasotako
erantzuna, beti
bezala, EZekoa
izan da, agintean
dauden
‘hirukotekoak’
aholkurik ere ez
baitute onartzen,
Beasaingo herriak
betirako kalteak
jasango baditu
ere”.*

Pergolen gunea zabaltzeko eta luzatzeko Beasaingo Udalak eta RENFEk sinatutako hitzarmenak, udal mailako alderdi politiko guztien babesa jaso zuen. Orain, berriz, hasierako plangintza aldatu egiten da eta Pergolen atzetik, trenbidearen pare-paretik bide berri bat egiteko asmoa azaltzen da, tren geltokiaren enparantza eta Iturralde kalea lotuz. Era berean, Nafarroa Etorbideko bideari ezaugarri mixto bat eman nahi zaio: karga-deskarga eta garaieentzat alde batetik eta oinezkoentzat bestetik. Guzti honegatik, Beasaingo Herri Batasunak alegazioak aurkeztu zituen, hiru arrazoi edo proposamenekin:

1.- Pergoletako guneari hasierako erabilera ematea, hau da, gunea berdea eta aisialdikoa, eta ez bide berri bat irekitzea eta aparkalekuak egitea. Zergatik eraiki behar da bide berri bat, bestearen erabilera bere horretan jarraituko duela ikusten bada? Ez dauka inongo zentzurik bide berri bat egiteak eta besteari —Nafarroa Etorbideari— zati bat kendu eta oinezkoentzat egitea, azken honetan trafikoa berdina edo antzekoa jarraituko duenean, garaje asko daudelako, komertzioek sortzen duten trafikoa berdina izango delako eta San Martin eta Erauskin enparantzetara eta Oriamendi kalera doan trafikoa berdina izango delako. Herri Batasunarentzat, alferrikako diru gastatzea da eta aisialdiarako guneari zati handi bat kentzea berriro ere kotxeen mesedetarako. Honekin, ia ezinezkoa egiten zaigu frontoi publiko bat edukitzea, Eskisabelgo urbanizazioan ezezko borobila jaso

Pergolen zabalkuntza: ez da inongo aholkurik onartzen

ondoren —hemen ere etxeak eraikitzeke—.

2.- Tren geltokiaren enparantza azpian errotonda behertu bat egitea, Beasainek premiazkoa duen N-1ekiko lotura egoki bat gauzatzeko. Gainera, toki aproposa izango litzateke inork non kokatu ez dakien autobus geltokiarentzat, tren zerbitzuarekin lotura eginez, eta erdigunean autobus hauek sortzen dituzten eragozpenak ekidituz.

3.- Indar ondoko garai bateko ‘Azpeitia Hnos’, ‘Garaje Moderno’... lurzoruetan eraikitzeke asmoa duten 120 etxebizitzaren egitasmoa bertan beheara uztea momentuz, gaur egun Indarreko orubean 300 etxebizitza eraiki nahi dituztelako ‘hirukotekoak’. Indarreko gaiari zer irtenbide ematen zaion ikusi ondoren, area osoaren proiektua berraztertutako beharko litzateke.

Jasotako erantzuna, beti bezala, EZekoa izan da, agintean dauden ‘hirukotekoak’ aholkurik ere ez baitute onartzen, Beasaingo herriak betirako kalteak jasango baditu ere.

Erantzuten zaigu esanez, egiten ari den trafiko ikerketan eta urbanizazio egitasmoaren antolaketatik etorriko direla irtenbideak, baina kontutan hartzen badugu azken hau en-

kargatu zela urbanizazio fitxaren aldaketa jendeareko esposake epean zegoela, garbi ikusten da zer ajola zaien hiritarren balizko alegazioek. GOIERRITARRAN bertan, “bide berriarekin erdigunean oinezkoek leku gehiago izatea nahi da” adierazten zuen Jon Jauregi alkateak, eta komertzioaren mesedetan izango dela gaineratuz. Guk uste dugu proiektu berri honekin oinezkoentzat ez dela gunea gehiago izango —gainera bi bideen artean mugatua— eta denok eza gutzen dugu zer dagoen prest PNV arriskatzeko komertzio txikiaren defentsan.

Guk planteatutako errotondari EZ esateko, argudio bakarra da, orain ezin dela egin, gaur egungo trenbidea “inguruetarako” bakarrik izendatu arte. Zer esan nahi du honek? Gure proposamena zentzuzkoa dela baina beldur direla bere kostuak legealdi amaierarako hauteskunde proiektua itzaliko diela?

Gure azken proposamena ez dute aztertu ere nahi, eraikitzaileak ez haserretzeko. Eta frontoiari buruz esaten digute urbanizazio proiektuan zehaztu beharko dela, baina bide berri bat eta aparkalekuak egitera badoaz, non kokatu frontoia?

Orain arte beti leporatu diote Herri Batasunari denari EZ esatea, baina azken aldi honetan baieztatu da HBk badietuela ideiak, egitasmoak eta gogoak Beasaingo herritarren nahiei eta beharrei erantzuteko. Ostera, agintean dauden ‘hirukotekoak’ ideiarik gabe geratu dira eta HBren proposamenei EZ esaten bakarrik daiten, garbi geratu den bezala Ezkiagan, alokairuzko etxebizitzak planteatzerakoan, Eskisabelen, Indarren, Pergoletan...

ERREZETA



*Pietro Silenci
Martini*

Arrizar bodegoia

Beasain

LANGOSTINOAK KOÑAK ERARA

Osagaiak: 6 langostino, 2 baratxuri ale, baso erdi bat koñak, esnegain likido piska bat eta 2 goilarakada tomate.

Langostino gordinak zuritu, buruak eta buztanak baztertuz.

Baratxuria txikitu eta oliotan jarri. Langostinoak irinetan pasatu eta oliotara bota. Gorritu arte utzi. Zartagia sutatik kendu eta koñaka bota, kontu handiz. Sua eman eta koñaka erre. Behin itzalita, tomatea eta esnegaina gehitu. Loditzen utzi. Azkenik, perrexil txikitu piska bat bota.

AHOLKUA



Marian Larrea

Dekoratzaila

Lanerako garaian bakoitzak bere gustokoen gauzak dauzka, eta ni, liluratzen nauena, metro karratu asko eta sapaï altuak dituen etxe zaharra berritzea da.

Oro har etxe horiek hutsune eta logela asko izaten dituzte, garai hartan beharra halakoa baitzen, familia bakoitzean kide asko, bizitzeko era, e.a.

Gaur egun espazio horretan eta lau kideko familia batentzat, bana-

Etxe zaharrak berriztatzea

ketarako aukerak ugariak dira. Adibidez, alde batetik, eguneko gunea nanatu dezakegu: egongela, sukalde-jangela, garbiketarako eta lizatzeeko gunea, bainugela. Bestetik, gaueko gunea, hiru logela, komunarekin eta jantzigelarekin. Gaur egun material eta kolore ugari ditugu, detaile bakoitza zainduz, etxe berezi, indibidual eta berezko nortasuna duena lortuko dugu, bakoitzaren behar zehatzetara egokitutakoa.

Bere garaiko arkitektura nabarmentzeko aukera ere eskaintzen dugu. Sapaïak eta moldurak, zurezko zoruak tratuak edo tindatuak, eta hori guztia bakoitzaren gustoko altzarien estiloarekin konbinatuz. Klasikoa, modernoa edo funtzionala. Gozamina da.

NAGASAKI Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN



USURBE ZENTROA

- Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)
- Lumbago, ziatika
- Kirol lesioak
- Errehabilitazioa

Jai denoi!
zoriontsuak

☎ 943 16 13 39
Andra Mari, 9-1.
BEASAIN



Usurbe
INPRIMATEGIA



Success
IN COMPETENCE
trodat

Diseinu grafikoa
Enkuadernaketak
Serigrafian inprimaketak
Kautxozko zigiluak

Bobinetan etiketa itsaskorrak
Inprimaki komertzialak orokorrean

Tel./Faxa: 943 88 63 63
Joan Iturralde, 7 BEASAIN

BEASAINGO



EUSKALTEGIA

**'Euskaraz mintza
hori da gure hitza'**

San Martin Pl, Kultur Etxea
☎ 943 889094
BEASAIN



14 mila tona zabor

1998ko hiruhilabetekoan, zaborren berreskuratze portzentia 1,1 puntutan hobetu da, iazkoarekin alderatuz. Guztira 14.361 tona zabor bildu dal. Gehiketaren arrazoi nagusia, etxeetako hondakinen gehikuntza datza. Hona hemen jarraian, bilketa bakoitzeko xehetasunak:

Beira: Mankomunitateko biztanle bakoitzak 4,7 kilo jaso ditu eta sortutakoaren %70a berreskuratu da.

Papera: Bilketa honek ere hobekuntza jaso du. Pertsona bakoitzak sortutako 6,9 kiloren % 43,6 berreskuratu egin da.

Ontzi arinak: Iazkoaren antzekoa izan da, % 30 ingurukoa. Dena den, orain arte, Beasain, Ordizia, Olaberria eta Lazkoan bildu dira ontzi arinak. Edukinontzi berriak jartzen ari dira Sasietakoak, kono itxurako horixka-laranja kolorekoa izango da eta Mankomunitateko herri guztietara zabalduko da.

Gurpilak: Balorapen energetikoan erabiltzen dira bildutako gurpilak, porlanaren industrian.

Tailerretako plastikoak: Urretxuko Garbigunean jasotako plastikoak enbalajetarako erabilitakoak izaten dira.

Lerro marroietako aparatuak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, ordenadoreak, telebistak, mikroelektronika aparatuak... biltzen hasi da Sasieta Mankomunitatea.

Egur garbia: Material hau ere hasi dira biltzen. Erretxinarekin nahastuz, aglomeratu taulak lortzen dituzte.

Osinalde bertso sariketa

Emakumeak izango dira nagusi bihar, maiatzak 23, Gabiriako Osinalde elkartearen jokatu den bertsolari gazteen Osinalde sariketan. 6 finalistetatik 4 izango dira

emakumeak: Nahikari Gabilondo, Oihane Perea, Amaia Agirre eta Leire Ostolaza. Gainerako bi gizonetakoak Alfontso Jimenez eta Aritz Zerain izango dira. Iluntzeko 9etan afaria izango da eta ondoren, 10,30ak aldera, finala.

Soinu zahar lehiaketa

Beasaingo Aurtzaka dantza taldeak neskentzako antolatutako 'Soinu zahar' lehiaketa Ariane Tokero eta Eider Mujika legazpiarrek irabazi zuten, bakoitzak bere mailan. Tokerok, 7-11 urte bitartekoetan; eta Mujika 12-15 urte bitartekoetan. Donostia, Legazpi, Lezo eta Ordiziako 38 neskek hartu zuten parte lehiaketan.

Beasaingo duatloia

Joan zen igandeko V. Beasaingo duatloiean Patxi Bodegas izan zen irabazle, 191 partehartzaileen artean. Bigarren postuan Mario Salazar mexikarrak bukatu zuen eta 3. Luis Miguel Garijo beasaindarrek.



Beasain igoera fasean

Beasain futbol taldeak 3. bukatu du liga 2.B mailan, azken partiduan Barakaldo, lide-rari, 3-1 irabazi ondoren. Postu honekin 2.A mailara igotzeko play off-a jokatu du. Play off-ean Malaga, Tarrasa eta Talavera izango dira beasaindarren aurkariak. Talde bakoitzarekin 2 partidu joakatu du, bat etxean eta bestea kanpoan eta sailkapeneke lehenengoak lortuko du igotzea. Lehen partidua etxean izango du Malagaren aurka igande honetan, maiatzak 24, Loinatz jaiak bete-betean direnean. Malaga lehen mailan jokatu izan duen talde indartsua dute beasaindarrek. Argazkiko Navarro entrenatzaileak denboraldi bikaina egin du jende gaztearen aldeko apostua egin da.

LURRAZPIKO JAIA !!

KULUSKA

ARANA, 1

☎ 943 88 93 88

BEASAIN

ITZALA

taberna

Zaldizurreta, 3

☎ 943 88 30 24

BEASAIN

PANCEA TABERNA

BEASAIN

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✗ Ordenadore salmenta
- ✗ Konponketa
- ✗ Informatika ikastaroak
- ✗ Etxeko zerbitzu teknikoak

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

Goierriko bertso-eskola kimu berritan

Hasiera orok du bere amaiera, eta Goierriko bertso-eskolak, Gipuzkoako Eskolarteko XVIII. Bertsolari txapelketarekin joko du amaitutzat aurtengo ikasturte jorriotsua.

Ur handitan, Aitor Sarriegi beasaindarrek, maisutasunez aitzineratu zituen txapelketa nagusiko olatu oldartsuak. Alaitz Sarasolak ere, ekimenaren arrauak kinatuz, sari ugari eskuratu ditu, bertso-paperen urgunean. Harizpi urrezatuari jarraiki eta bertsoaren atakan pulunpatu berriak badiara ere, Iban Urdangarin, Haitz Aierbe, Oier Zurutuza, Aitzol Munduate eta Irati Goikoetxeak etorkizun oparo eta osasuntsua begitantzen digute. Esanaren lekuko dira Munibe, Orixe, Berbaro, Lazkao Txiki eta Euskal Eskola Publikoak antolatutako lehiaketetan lortutako sariak.

Halaber, kimu berrien loratzea ez zatekeen ahalgarri gertatuko Goierriko bertso-eskolaren bizkarrezurra osatzen duten Argi Berri elkarteke Joxe Mari Baran-



Oier Zurutuza, Aitzol Munduate, Iban Urdangarin, Haitz Aierbe, Irati eta Ekaitz Goikoetxea, Iker Zubereldia eta Iñaki Apalategi.

diaran, Pedro Irastorza eta Manolo Gorosperen laguntza eta aiuta eskergik gabe; ez eta bertako arima den Mikel Mendizabalen babes eta sorospenik gabe.

Emaizten zorabioan, mozkorralldirako Eskolarteko txapelketak damaigun azken abagadunea baino ez zaigu geratzen. Bertan, 8 goierritar arituko gara nor baino nor, urduritasunaren odolbideetan kuraiaren indarra ildokatuz. Txapelketa, bi mailatan banatzen da; 14 urte artekoek osatzen dute bata eta 15etik 18 urte bitartekoek bestea. Txikietan,

taldeka neurtzen dira bertsolariak eta Haitz Aierbe, Aitzol Munduate, Oier Zurutuza, Iban Urdangarin ataudarrek eta Irati Goikoetxea beasaindarrek ordezkaturiko dute Goierriko taldea. Urretxun jokaturako kanporaketan saio eder bat eskaini ondoren, urrats bat besterik ez zaie geratzen amets zerutiarra gorpuzteko.

Gazteen mailan oster, banaka jardun behar izango dute Iker Zubereldia, Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxeak. Munduateren gidaritzapen estimagarrian, en-


tremandu luze eta gogorrek egin ondoren, hiru beasaindarrak aldarte onean iritsi dira aurtengo txapelketara. Iñaki Apalategi, maiatzaren 15ean Urretxun jokatu zen kanporaketan kantatzea egokitu zaitzaion eta maiatzaren 29an, Orion izango den finalerako sailkatu zen. Iker Zubereldia eta Ekaitz Goikoetxeak, berriz, gaur, maiatzak 22, saiatu beharko dute Oñatin.

Dena den, gure adiskidea den Haritz Zeberio bertsolariaren hutsuneak zapuzten du ihintzez ezituzko gogamen oro. Aitzitik bere irudia ongi tailaturik eramango dugu oholztadu eta bihotz-begietan, oruberik gabeko oroitzak xaramelatuetan. Stormongo haize lurruntzuak, iguripen iboildua dakar Euskal Herrira, preso guztien Euskal Herriratze eta etxeratzea brodatuz zeru-ertz ainubea. Bukatzeko, lehiaren jokoan eta hitzaren errima neurtutik, besarkada bat Haritz eta zorte on gainerako guztioi.

Ekaitz Goikoetxea (Goierriko bertso-eskolako ikaslea)

ÑAÑARRI
taberna

Kale Nagusia, 1 ☎ 943 88 06 59
BEASAIN



Aterki eta poltsak, bidaietako artikulak, konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

Jai zoriontsuak denoi!

San Inazio, 2 **BEASAIN** ☎ 943 16 09 65
Errementari, 5 **TOLOSA** ☎ 943 67 41 43

A H O L K U L A R I T Z A

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59

mujika
OINETAKOAK


Nafarroa Etorbidea, 11
☎ 943 88 27 16 **BEASAIN**

JOXE FELIPE AUZMENDI BIKOIZLEA ETA TELEBISTAKO AURKEZLEA:

"Ari zarenean sinisten saiatu behar zara, eta natural antxean kontatzen"

Joxe Felipe Auzmendi beasaindarra kasualitatez sartu zen bikoizketaren munduan 1983an. Lehenengo ingeleratik euskarara testuak itzuliz eta geroago pertsonaiei ahotsa jarritz. Kamara aurrean jartzeko aukera etorri zitzaion duela sei-zazpi urte. Gaur egun Telletxea saioko aurkezlea da.

Euskal Telebista sortzeaz zegoela, pelikula, dokumental, marrazki bizidunetako... hitzak ingeleratik euskarara itzultzeko aukera izan zuen lagun bati esker 1983ko irailean. Kasualitate hutsez sartu omen zen. "UBI edo COUko ikasketak egitera Bostona joan nintzen, herriko beste hirurekin batera. Hegazkinean joan-etorrian euskaldun baten lagun egin ginen. Itzuli eta berak hots egin zidan (gau-



Oteizaren miresle da Joxe Felipe eta bere eskulturaren ondoan atera nahi izan du argazkian.

eskolan nenbilen klaseak ematen orduan) pelikulak, dokumentalak... ingelesetik euskarara itzultzeko jendea behar zutela esanez. 1983ko irailean hasi nintzen. 12 folio itzultzeko hila-bete eta piko pasatu nituen". Garai hartan lana erruz zegoen Joxe Felipek esan digunez. "Telebista berria zen, eta material asko sortu beharra zegoen. Euskara ondo samar zekienak eta mundu horretan sartuta zebilenak, aukera handia izan zuen. Bikoizketatik 150 bikoizle pasatu di-

ra, gaur egun lanean ez dira bi dozena arituko. Geroz eta lan gutxiago dago eta etortzen den gutxi hori zailduta dagoenari ematen zaio, eta ez gazte bati", argitu digu beasaindarrek. Bikoizketan dabilzanen artean, Euskadin, bi ahots omen daude onak direnak, "beste-ona ikasitakoa da, landutakoa", dio Joxe Felipek.

Lagun talde batek bikoizketa enpresatxo bat jarri zuten martxan duela lau-pabost urte. Bikoizketa lan gehiena gaztekeraz egi-

ten omen dute, baina hainbat filme ere euskaraz bikoizten dituzte, zinemetan emateko. Beasaingo eta Ordiziako zineetan oraintxe ari dira filmeak eskaintzen. "Lauz-pabost urte daramazkigu horretan eta 45.000 haur eraman ditugu zinera. Izugarri kostatzen da pelikula bat bikoiztea. Laguntza txiki batzuk izaten ditugu tarteka eta horrekin beste pelikula bat bikoizten dugu", argitu digu.

Lazkao-Txiki

Lazkao-Txikiren marrazki bizidunetan ataundarraren ahotsa jarri du beasaindarrek. Goierrieraz hitz egiteko aukera ematen dio horrek, eta oso gustora sentitzen da. "Proiektu batean nik nahi zuten Lazkao-Txikirena egitea baina nik ez nuen ahots finik. Koldo Izagirrek egin du gidoia, euskaraz oso ondo daki baina gidoia bikoiztu behar genuenean, esamoldeak eta ez ziren goierritarronak. Nik sartu nituen Goierriko esa-

MARGOGAT, s.l.

- ✓ Pinturak
- Dekorazioa
- Industrialia
- ✓ Tresnak
- ✓ Makineria

Tfnoa./faxa: 943 88 65 63
Oriamendi, 32 BEASAIN



ILEAPAINDEGI
MISTOA

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Ofariak
- Enmarkazioak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 Andra Mari, 5
TOLOSA BEASAIN

molde batzuk eta haserretu egiten zitzaidan Koldo Izagirre. Gutxi ginen goierri-tar bikoizleak eta nabaritu egiten da Goierri-kanpoko-ek bikoizten zutenean. Goierritarrok gustora hartu ditugu Lazkao-Txikiren marrazki bizidunak". Ataundarrak dena den, haserre samar omen dabilta Joxe Felipek jakin duenez. "Ataundarraren ahotsa bikoiztu dut eta ataundarra beti ton-toa da eta martxa honetan Euskadiko Lepe izango den edo esanez ari zaizkit".

Kamara aurrean

Kamara aurrean dena den saio edo lehiaketa ugari aurkeztu ditu Joxe Felipek. Txandaka lehiaketa izan zen lehenengoa. Tartean, Gezurra Nagusi, Jaiak... eta orain Telletxeatarren showa aurkeztu du. Gustoen egin duena Gezurra Nagusi izan da. "Jendeak ez dakit oso ondo ulertzen zuen, eta adarra jotzeko aukera izaten zen. Joko polita ematen zuen". Jaiak programan ondo pasatu bai, baina oso pitsutsua izan omen zen. "Behin balitz ondo, baina izugarritzko paliza izan zen, nahiz eta jendeak esan zein



elkartuko gara". Danborradan ere parte hartuko, azken 10 urteetan bezala. "Koadrilen egunean aurten Telletxea saioa izango dugu eta ez dakit nola moldatuko naizen. Esan diet Beasaindik egiteko Telletxea saioa, baina..."

ondo pasatzen genuen. 63 egun segidan, egunero ia 15 ordu segidan alde batetik bestera, paliza handia izan zen. Ondo pasatu genuen baina gogorra izan zen. Zuzenean egitea bezala zen, kalera atera eta gidoirik gabe, inprobisazioa izaten zen".

Orain Telletxea show saioko aurkezlea da. Hemen ere inprobisazioa handia omen da, nahiz eta gidoi

Herriko jaiak

Gaur bertan hasiko dira Beasaingo jaiak. Asteazkenean zehar Beasainen lo baka-rik egiten omen du Joxe Felipek. Herriko jaietarako, ordea, egingo du tarte handiagoa herrira etorri eta jaietan parte hartzeko. Marriren jaietsieraren ondoren, koadrila zaharrenekin afaria egiten dugu, "koadrilako ezkonduak eta ezkongabeak

antzeko bat izaten duten. "Gauza asko hartu behar dira kontuan zuzeneko saioan. Mikroa, belarritakoa, erregidorea, elkarriketa-tuari egin beharreko galde-rak, berak erantzuten duena... Polita izan liteke saioa, baina medioak behar dira, eta telebistan antzeman egiten dira medioak. Talde oso majoa gaude, baina apus-tua oso gogorra da eta ikusi-siko dugu".

Aspertzeko arriskua?

Telebistan ia beti pertsonaia berak ikusita jendea asper-tzeko arriskurik ez ote da-goan galdetu diogu. "Trin-cako produktore batek esa-ten zuena daukat gogoan. Telebistan erretzen dena, ateratzen ez dena da. Ate-ratzen dena ez da erretzen, hori bai, lana ondo eginda. Alegia, programa bat landu gabe eginez gero, erre egi-ten zara, eta errepikatu egin zara beti errekurtsio berdi-nak erabiltzen dituzulako.", dio Joxe Felipek.

Jendea gainera, erraz ahazten omen da. "Telebis-ta utziz gero, jendea ahaztu egiten da zutaz. Telebistak edozeini ematen dio arra-kasta, txarrena denari ere bai".

Beasaindarrek argi dauka saio batek arrakasta izateko, ari denean sinistu beharra dagoela. "Ari zarenean si-nisten saiatu behar zara, eta natural antxean konta-tzen. Eta ondo pasatzen saiatu behar da. Guk eginez ondo pasatzen badugu, et-xera iritsi egiten da".

BESTE BAR

OGITARTEKO
PINTXO
KAXUELITAK

SINAZIO 1 160284-BEASAIN

RICKLER

- ✓ Ileapaindegia
- ✓ Edergintza
- ✓ Solariuma

**JAI
ZORIONTSUAK
DENOI!**

Nafarroa Etorbidea, 37
843 88 02 97 **BEASAIN**

ERRETEGIA

Urkiola

Kale Nagusia, 7
943 88 03 19
BEASAIN

XABIER SALINAS

Erraminta elektrikoaren konponketa

Bosch, Metabo, Flex...
marka guztiak

943 88 21 49 **BEASAIN**

Seat 600 berriro modan

Agian zuetako batzuek erreparatuko zenuten bezala, azkenaldian Seat 600ak gure errepidetara itzultzen ari dira. Duela hamarkada batzuk belaunaldi baten sinboloa bihurtu zen autoa berpizten ari dela esan liteke. Honen adierazle garbia da, sortu berria den Gipuzkoako Seat 600 Zaleen Elkarte. Bertan, 7-8 goierritar badira, eta horietako laurekin hitz egiteko aukera izan dugu euren zaletasun bitxiaren inguruan. Mikel Agirre, Mikel Aranburu, Gaxan Azkona eta Jon Urretabizkaia, gazte beasaindarren laguntzaz murgilduko gara Seat 600en mundu liluragarrian.



"Badakit arraro samarra dela nire kasua, normalean 20 urteko gazte gehienen ametsa GTI bat izaten delako. Niretzat 600a da ametsetako GTI hori".

Lau hauek hiru bat urte daramazkitez Seat 600en inguruan. Elkarren artean lagunak ziren, eta baten ekimenari besteek jarraitu egin zioten: *"Inbidia piska bat tarteko izan zela esan liteke"*. Era honetan interesa pizten joan zitzairen eta azkenean, 600 bana eskuratzu bukatu dute.

Zergatiak bilatzerakoan, honelako auto bitxi bat edukitzearen kapritxoari kotxe zaletasuna ere gehitzen dio. *"Neurri batean gurea auto zaletasuna ere bada.*

Ez auto deportiboekin gertatzen den modukoa, baina azken finean gure 600ak gidatuz asko gozatzen dugu. Gainera, kotxe polita da... edo behintzat xalatu. Izan ere, beste garaietako zerbait da, martxan dabilena baina oraingo garaitik erabat kanpo dagoena. Jendearen arreta pizten du, askotan badirudi Porche batek baino interes gehiago sortzen duela gure 600ak".

Adierazpen hauetatik ondorioztatzen den bezala, gazte hauek, 600en jabe iza-

teaz gainera, erabiltzaile porrokatuak ere badira. Elkarteko partaide gehienek autoa kapritxo bezala duten bitartean, goierritarren artean gauza berezia gertatzen da, eguneroko bizitzan erabiltzen dutela: *"Hasieran guk ere kapritxo bezala hartu genuen, baina erabiliz bukatu dugu. Kotxe txikia da, xumea, baina erabiliz gustoa hartzen diozuna. Gainera, hemen inguruan ibiltzeko nahikoa da. Kilo metro asko egiteko ez da aproposa baina Donostiara joan-etorria ederki egiten du. Eta, aparkatzeko oso erraza da"*, diote.

Lehen pausoak

Hasieretara itzuliaz, modu desberdinetan eskuratu dituzte gure solaskideek euren 600ak. Modu desberdin eta bitxietan. Mikel Agirre eta Mikel Aranbururen kasuan, jabea hil zelako salgai zegoen 600 bat hiru lagunengatik erosi zuten kapritxo modura. Eta hura ondo prestatzen jardun zuten: *"Ondoren, behin mundu horretan sartuz gero, errazago heltzen zitzaigun non*

SALOA taberna

Giro on eta jatorra
"Festak ondo pasa"

☎ 943 88 06 02

Kale Nagusia, 33 BEASAIN



ELECTRO ORIA

SALMENTA - ZERBITZU TEKNIKOA

Tfnoa. eta Faxa: 943 16 05 33

Kale Nagusia, 29 - BEASAIN



SATELITE BIDEZKO ANTENAK
TELEFONO MUGIKORRAK
AUTO-IRRATIAK

SATELITE VIDEO-HIFI
CANAL DIGITAL TB-ak



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN
Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA



Ondo pasa festetan!

zegoen bat salgai, eta azke-
nean bana erosiz bukatu du-
gu”.

Gaxan Azkonaren auto-
ak, berriz, urtebete zeraman
Zeraingo baserri bateko
ganbaran. “Karneta atera
berritan 600a erosteko go-
goa sartu zitzaidan. Zera-
inen bat salgai zegoela jakin
nuen eta erosi. Badakit
arraro samarra dela nire
kasua, normalean 20 urteko
gazte gehienen ametsa GTI

bat izaten delako. Niretzat
600a da ametsetako GTI
hori”, adierazi digu.

Autoen itxurari dagokio-
nean, autojabe bakoitzak
bere bidea hartzen du. Ba-
tzuek bere bolante handia,
eta barruko nahiz kanpoko
itxura mantendu nahi duten
bitartean, beste batzuek
osagai modernoagoak jar-
tzen dizkiete, llanta edota
aleroiak. Hori bai, betiko
itxuraren apustua egiten du-

tenek, ez omen dute arazo-
rik piezak eskuratzeko.
“Dexente geratzen dira
oraindik, eta gainera Elkar-
tean gaudenez, nahiko erraz
lortzen dugu behar duguna
txoko batean edo bestean”.

Elkartea

Gipuzkoako Seat 600 Zale-
en Elkartearen eragile nagu-
sia Juan Antonio Bueno to-
losarra izan da. Berak hartu
zuen zeuden talde txikiak
bildu eta denak elkartzeko

ardura. Eta honela, duela hi-
ru hilabetetik Gipuzkoako
600 Zaleen Elkartea ofiziala
da. Momentu honetan 30
auto inguru biltzen dira el-
kartean, hori bai, autoko
pertsona bat baino gehiago
dago elkarkide moduan.

Ondo pasatu

Helburu nagusi bezala ondo
pasatzea dute, tarteka elkar-
tu eta bueltatxo bat ematen
dute autoekin: “Dozena bat
elkartu eta norabaitera joa-
tea gauza polita da, ederki
pasatzen dugu geure batai-
latxoak kontatzen”, esan di-
gute. Elkarteko partaideen
artean denetarik omen da-
go, baina bi talde nagusi be-
reiz daitezke: duela 30 urte-
tik autoa dutenak, eta bes-
taldetik, 20-25 urteko gazte-
ak.

Iruñean eta Bilbon ere
badira 600 Zaleen Elkartea-
k. Hauek ere antzeko
ekintzak burutzen dituzte
eta denen artean zerbait
prestatzeko asmoa ba omen
dago. “Baina gure elkartea
oso gaztea denez, oraindik
denbora gehigirik ez dugu
eman”.

Aitor Arrue

Beasaingo festak

Aurtengo Beasaingo festetako egitarauaren berritasunetarikoa bat Seat 600en inguruan izan-
go da. Errepetizioetako igandean, maiatzak 31, 17:30ak aldera, 600en bilkura eta erakuske-
ta izango baita Joan Iturralde plazan. Gipuz-
koako Elkarteko auto gehienak biltzeko asmoa
dute, beraz 20 autotik gora izango dira ziurre-
nik. Azaldu digutenez, “lehenik bueltatxo bat
emango dugu Goierri zehar, Ormaiztegi, Mu-
tiloa, Segura, Zegama eta Idiazabal dik barre-
na. Eta 17:30ak aldera, Beasaina itzuliko ga-
ra, autoak Joan Iturralde plazan utziz”.



Ekintza honek ikusleak erakarriko dituelakoan
daude. “Kalean ikusten gaituztenean behint-
zat jendeak asko begiratzen gaitu. Jende hel-
duak maite ditu Seat 600ak, kasu gehienetan
inguruko norbaitek izan dituelako; eta gaztee-
nentzat, berriz, beste garai batetako traste za-
har bitxiak dira”. Beraz, potentzi eskaseko
baina itxura jator eta maitagarria duten auto
hauek ikusi nahi dituzuenek hortxe duzue gon-
bitea.



Labores Otea

Gurutze-puntua
Petit point
Lanas Stop
Artileak, e.a.

☎ 943 16 23 84
Andra Mari, 1 BEASAIN



Jai zoriontsuak denoi

San Inazio, 2
☎ 943 88 11 75
BEASAIN



GOIERRI
Taberna
Jatetxea

Jai zoriontsuak guztioi!

Kale Nagusia, 18

☎ 943 88 00 00

BEASAIN

Bazkariak
eta afariak
momentuan
edo
enkarguz



Festak ondo pasa!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

AUTO ASEGURUA

- Segurutik zuregandik hurbilago gaude, zu hobeto zerbitzatzeko
- Segurutik noranahi joanda ere. Laguntzarako telefonoa izango duzu
- Segurutik Bidaietarako Laguntzan Estaldurarik Hoberenak izango dituzu
- Segurutik Peritazioa Azkar baino azkarrago izango da
- Segurutik zure Hobariak kontuan hartuko ditugu
- Segurutik gure prezioen truke ez duzu estaldura hoberik aurkituko




SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa

DIGITAL INPRIMAKETA
EDOZEIN NEURRITAKO KARTELAK
AUTOCAD-ETIK PLANOAK
PAPERTEGI TEKNIKOAK
PLOTTER ZERBITZUA ARGAZKI KALITATEAN

BK

BEGIRISTAIN KOPIAK

FOTOKOPIAK Z/B - KOLORETAN
ENKUADERNAKETAK
PLASTIFIKAZIOAK
KAMISETA INPRIMAKETAK
FAX ZERBITZUA

DISEINU GRAFIKOA
LOGOTIPOAK
PUBLIZITATEA
KATALOGOAK
KARTELAK

Erauskin enparantza (Etxe-Ubi) - BEASAIN - Tel: 943 16 09 74
Urdaneta kalea, 18 - ORDIZIA - Tel: 943 16 14 69

Loinatz jaietako albiste laburrak



Pegatinak paparrean

Ai Geala euskara taldeak Loinatz jaietan euskararen aldarrikapena bultzatzeko pegatinak atera ditu. Aurretik egindako lehiaketan bi esaldi aukeratu dira: 18 urte artekoen mailan, Itsaso Goikoetxea beasaindarrak irabazi du, 'Festarik festa gozatuz, denak euskaraz mintzatuz' esaldia-rekin; helduen mailan Imanol Urzelai izan da irabazlea, 'Bareak azari, guk euskarari'. Argazkian, Itsaso Goikoetxearen ama, berak ezin izan baitzuen etorri, eta Imanol

Urzelai.

Brusa lehiaketa

'Gure Eskuetan' taldeak bideraturik, I. Brusa lehiaketa izango da, koadrilen egunean. Epaimahaia laguntaldean jaitziera bitartean arituko da lanean eta sariak 20:00etan banatuko dira, egun berean, dantzaldia ari den bitartean. Sariak honako hauei emango zaizkie: brusarik dotoreenari, brusarik alaienari, brusarik itsusienari eta brusarik originalenari.

Azoka berezia

Maiatzaren 26an, asteartea, izango da azoka berezia. Barazki lehiaketa Loinatzko San Martin plazan izango da. Azienda, hegazti eta artisautza lanen erakusketa, Joan Iturralde plazan. Eta talo das-

Herri-kirolak bi igandeetan

Maiatzak 24: Beasain eta Olaberria taldeen arteko lehia: aizkoran, trontzan, txinga eramaten, koskolak biltzen eta korrika. Barrendain plazan, iluntzeko 7etan.


Maiatzak 31: 19.00etan hasita, Barrendain plazan: Xabier Orbegozo 'Arria V.' Iñaki Azurmendi arriarandarraren aurka harituko da aizkoran. 3 kanaerdiko eta 3 60 ontzako ebaki beharko dituzte. Ondoren, Joan Jose Unanue 'Goenatxo II.' harrijasotzailea 175 kiloko harriko kubikoarekin marka jartzen saiatuko da. Eta azkenik, berriz ere aizkolariak izango dira: Nazabal-Larretxea nafarrak Peñagarikano-Olasagasti gipuzkoarren aurka. 10 kanaerdiko, ebaki beharko dituzte, erdiak zutik eta erdiak etzanda. Egun osoan zehar, Iturengo Aurtizko joaldunak ibiliko dira kalez kale.

taketa, Zubimuzu plazan.

Erakusleihen lehiaketa

Aurten dendetako erakusleihen lehiaketaren antolakuntzak 1997. urtean hasitakoari jarraituko dio, epaimahaia jendeak emandako botoz eratua izango baita. Botoa eman nahi duten pertsona guztiek, Beasaingoak izan ala ez, Segura Irratira deitu be-

harko dute (943-801041 - 943-801347), maiatzaren 25, 26 eta 27an eguerdiko 12,30etatik 1era. Pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du. Lehiaketaren irabazleari emandako sariak gain, botoa emateko Segura Irratira deitu duten pertsonen artean erosketak egiteko 8.500 pezetako bi bale zozketatuko dira.



**KOTXEENTZAKO
DEN-DENA**

**GARBIKETA ETA
MANTENIMENDUA**

- Neumatikoak
- Direkzio zuzenketak
- Gurpilen oreka elektronikoa
- Ihes-tutuak
- Olio aldaketa...

**10. Poligonoa, 18. Pabilioia
Salbatore - BEASAIN**

☎ 943 16 18 47

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

Maiatzak 22, ostirala:

17:00etan: Xake txapelketa, Gernika pasealekuan.

19:00etan: Erraldoi eta Kilikien irteera txistulariekin eta Musika eskolako musika bandarekin, San Martin plazatik abiatuta.

21:00etan: Loinatz, Loinatz Gaztea eta Loinatz Txiki abesbatzen kontzertua, Andre Mari Zerutuaren Parrokian.

22:30ean: Mariren jaitsiera, San Martin plazan.

23:00etan: Eskualdeko Erraldoi eta Kiliki taldea Koskola txarangarekin.

23:00etan: 'Arawak' reggae taldea, Bideluze plazan.

Maiatzak 23, larunbata:

9:00etan: Txistularien Udal bandaren goizeresia.

10:00etan: Meza, Loinazko Andre Mariaren ermitan.

12:00etan: Umeen danborrada, Igartza-Oletatik abiatuta.

15:30ean: V. Mikel Soto arku-tiroketako txapelketa, J. M. Aristrainen zelaian.

16:00etan: Loinatz eskuzko pilota-txapelketa, Antzizar kiroldegian.

17:00etan: Hiri-jokoa, Joan Iturralde plazan.



19:00etan: Koskola txaranga.

22:30ean: Danborrada, Igartza-Oletatik abiatuta.

00:00etan: Danborradako konpainien bilkura eta azken joaldia Koskola txarangarekin eta Musika eskolako bandarekin, San Martin plazan.

00:30ean: 'Rivera de Navarra' jota taldea, San Martin plazan.

1:00ean: 'La cabra mecánica' musika taldea, Bideluze.

Maiatzak 24, igandea:

9:00etan: V. Mikel Soto arku-tiraketako txapelketa, Aristrainen zelaian.

10:00etan: Kalejira Txistularien Udal bandarekin.

10:00etan: XXVIII. Loinazko San Martin Nazioarteko Xake jokaldiak, Ezkialga Auzo etxean.

11:00etan: Landare eta sendabelarren erakusketa, Zubimuzu plazan.

12:00etan: 'Barea' marrazki lehiaketa, Joan Iturralden.

12:00etan: 'Beasaingo Hiria' izeneko argazki lehiaketako erakusketa, sari ematea eta luncha, Ururbe Antzokiako Erakusketa aretoan.

12:30ean: Udaltzatzen soka-dantza, San Martin plazan.

13:00etan: Beasaingo eta Aretxabaletako akordeoi orkestak, San Martin plazan.

18:30ean: Oskorraren 'Marjane kanta zan' ikuskizunarekin, San Martin plazan.

19:00etan: Herri-kirolak: talde arteko apustua, Barrendain plazan.

23:00etan: Caballerren su artifizialak, Igartzako jauregiaren atzeko zelaian.

23:30ean: 'Amparanoia' taldeak 'Homenaje a Machin' diskoa aurkeztuko du, Bideluze plazan.

Maiatzak 25, astelehena:

8:00etan: Udaleko Txistulari bandaren goizeresia.

9:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen baselizara. Ondoren Meza Nagusia.

10:30ean: Erromeria usariozko marraskiloak dastatuz, Loinazko San Martinen baseliza inguruan.

11:30ean: Laguntaldeen arteko futbol txapelketako azken partidua, La Salle-San Jose ikastetxean.

11:30ean: Umeentzako parkea, Urbialde plazan.

13:00etan: Laguntaldeen irteera Oria eta Txalaparta txarangek alaituta.

18:30ean: Laguntaldeen bilkura eta jaitsiera Barrendain plazatik, Oria eta Txalaparta txarangek lagunduta.

19:30ean: Drindots, Bideluze plazan.

MIRENTXU

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

Festak ondo pasa!

Kale Nagusia, 1
Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 943 88 14 57
☎ 943 88 04 55

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1

☎ 943 16 16 72 BEASAIN

EDARITEGIA

Jar

KAFETEGIA

Festa onak pasa!

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 943 88 86 81

BEASAIN

20:00etan: I. laguntaldeeta-ko brusa-lehiaketaren sari banaketa, Bideluze plazan.

23:00etan: Drindots, Bideluze plazan.

Maiatzak 26, asteartea:

10:00etan: Txistularien Udal bandaren kalejira.

10:00etan: Azoka berezia.

11:00etan: Umeen soka-dantza, San Martin plazan.

12:00etan: Josune eta Aitziber Otegi trikitilariak, San Martin plazan.

13:00etan: Bertsolariak: Lizaso, Egaña, Irazu eta Sarriegi, San Martin plazan.

19:00etan: Helduen soka-dantza, San Martin plazan.

19:30ean: Bertsolariak eta Josune eta Aitziber Otegi trikitilariak, San Martin plazan.

Maiatzak 29, ostirala:

17:30ean: Kokox, Kakax eta Kiriki pailazoak, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Beasaingo Erraldoi eta Kilikien irteera txistulariekin eta Musika eskolako musika bandarekin, San Martin plazatik.

22:00etan: Urrezko Barea ematea, Beti Bizi elkartearen.



22:30ean: Rock konzertua: Katulu eta Bi Kate, Gipuzkoako plazan (txosnetan).

23:00etan: Dantzaldia Sugan zeltiar musika taldearekin, San Martin plazan.

Maiatzak 30, larunbata:

9:00etan: Saskibaloiko Gipuzkoako txapelketa (alebinak), Antzizar kiroldegian.

10:00etan: Txistularien Udal bandaren goizeresia.

10:00etan: Erretiratuentzako toka eta igel lehiaketa, Zaldizurreta kaleko terrazan.

10:30ean eta 15:30ean: Aitz-Zorrotz elkarteak antolatutako eskualdeko mailako plater tiraketa, 'Suministros Loinaz'-en parean.

11:00etan: Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa, San Martin plazan.

13:00etan, sari banaketa.

16:00etan: XLVIII. Loinatz txirindulari proba 2. mailako amateurrentzat.

16:00etan: Gaztetxoentzako xake lehiaketa, Ezkiaga Auzo etxean.

17:30ean: Umeentzako mo-zorro tailerra, Joan Iturralde plazan.

18:45ean: Mozorro-tuen bilkura eta ibilaldia.

19:30ean: Txalaparta txaranga.

19:30ean: Umeentzako dantzaldi suspertua 'Hortz-muga' taldearen 'Txarango-ren txaranga' ikuskizunarekin, Joan Iturralde plazan.

00:00etan: Mozorro-tuen jaitsiera, Barrendaindik.

00:30ean: 'Los charros' mariatxiak, Bideluze plazan.

Maiatzak 31, igandea:

9:00etan: Iturengo Zantzarren esnadeia.

11:30ean: Gomazko pilotaz jokaturako pala txapelketako finala, Batzokian.

11:30ean: Zaldi-lehiaketako entrenamentuak, Igartza atzeko zelaian.

12:00etan: Dendetako erakusleihen lehiaketako sari banaketa.

13:00etan: Musika bandaren kontzertua, San Martin plazan.

16:00etan: Zaldi lehiaketa Igartza atzeko zelaian.

17:00etan: Umeentzako eskalada arrokadromoan, Senpere kaleko zubi gaineko plazatxoan.

17:30ean: Seat 600 autoen bilkura eta ibilaldia.

18:00etan, bilkura eta erakusketa, Joan Iturralden.

18:00etan: Txotxongiloak: 'Bihar' taldeak 'fantasiako puzzlea' ikuskizuna eskainiko du, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Herri-kirolen erakustaldia, Barrendainen.

20:00etan: Ostadar Euskal dantza taldea, San Martin plazan.

PEALE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto

Korreo,25 | Garibai, 6 | Nagusia, 42
TOLOSA | DONOSTIA | BEASAIN



Oinetakoak

Jai zoriontsuak denoi!

Laskurain, 12

☎ 943 65 37 86

TOLOSA

San Inazio, 14

☎ 943 16 04 34

BEASAIN

KiTTó


EDARITEGIA

ZORIONAK
BEASAINDARROI!

Iturralde, 1
BEASAIN

HON KONG-eko METROA

Hon Kong-eko Metroko unitateak (MTRC), nazioarteko trenbide zabalerakoak, 23 unitatez osatuak daude, eta unitate bakoitza 8 kotxez. Unitate horietatik 11 Aireportuko Zerbitzu Espreserako dira. (AEL) eta 12 Metro Zerbitzurako (LAL), tartean geldiuoneekin. Kotxeak aluminioz eginak daude eta 135 Km. orduko abiaduran ibiliko dira.



CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIARES DE FERROCARRILES, S.A.

C.A.F. S.A BEASAIN

J.M. Iturrioz, 26

Beasain

Tel.: 943 88 01 00

Faxa: 943 88 14 20

Zorionak Bilkoin!

25 urte
pasa dira
1973ko
maiatzaren 27an
Bilkoin Elkarteak
ofizialki sortu
zenetik. Hau
dela eta bertako
lehendakaria
den Joxe Mari
Etxeberriarekin
izan gara.



Bilkoinek antolatzen duen zikiro jatearekin jarraitu ahal izateko jendearen parte hartzea beharrezkoa da.

Garai hartan, Jota-Kea elkartetik zenbait bazkide bota zituzten arazo politikoengatik. Hauei, kanporatze honen aurka azaldu ziren beste bazkide batzuek batu zitzaizkien eta elkarte berri bat sortzearen ideia sustatu zen. Bestalde Ovidio Martin zena Legorretara bizitzera etorri berria zen. Honek, Tolosako elkartearen giroa barrubarrutik ezagutzen zuen eta Legorretan antzekoa sortzeko gogoia zuen. Etxeberriaren iritziz, bi faktore hauek izan ziren erabakigarriak elkarte sortzeko.

Hastapen haietan ere, ez zen tirabirarik falta izan. Batzuek jateko txoko bat izatera mugatuko zen elkarte gastronomikoa bakarrik nahi

baitzuten. Besteek aldiz, herriko bizitzan eta ekintzetan parte hartuko zuen elkarte baten aldekoak ziren. Hasieratik emakumeek ez zuten inongo arazorik izan elkartearen parte hartzeko. Sorrera hartan 100en bat bazkide bildu ziren eta 3.000 pezeta ordaindu behar izan zituen bakoitzak 2.500.000ko aurrekontuari aurre egin ahal izateko. Elkarteak kokagunea berbera mantentzen du sorrera egunetik eta metro karratu kopuru berbera badauka ere, berrikuntza lan garrantzitsuak jasan izan ditu.

Etxeberriaren iritziz elkartearen helburuak honako hauek dira: alde batetik bazkideei begira, lagunartean ondo pasa ahal izateko txo-

ko berezi bat eskaintzea. Herriari begira, berriz, urteen poderioz ohikoak bilakatu diren zenbait ekintza antolatzea (krosa, futbol eta pilota txapelketa, Urte Zahar gaueko dantzaldia) eta beste zenbait ekintzei laguntza eskaintzea, herriari bixitasun piska bat emateko.

XXV. urteurren hau ospatzeko zenbait ekintza burutu zituzten aurreko asteburuan. Joan den ostiralean, hilak 15, jokatu zen mus txapelketan 27 bikotek hartu zuten parte ondorengo emaitzarekin: lehenengo Larrea-Bixki eta 2. Palentino-Maño.

Larunbatean, 680 kiloz azpiko Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketaren finala jokatu zen pilotalekuan. Bertan Abadiñoko mutilak nagusitu ziren. Gaueko 11,30etatik aurrera Karraxi taldearekin dantzaldia izan zen.

Igandean, hilak 17, hildako bazkideen aldeko meza ospatu zen. Ondoren bazkideek elkartearen bertan baz-

kaldu zuten.

Azintzio festei begira, ohiko ekintzak bete beharko ditu Bilkoin Elkarteak, bertan izan baitzen eta izango baita asteazken gaueko afaria eta ostiral eguerdiko zikiro jatea. Hori bai, elkartearen ahalegina bakarrik ez da nahikoa izango azken ekintza hau etorkizunean aurrera eramaan ahal izateko. Azken urteetan arazoak izan badira ere jendearen eskasia dela eta, Zugarramurditik etortzen diren mutilek borondate ona azaldu dute elkarteari prezioak ezartzearako garaian. Jendea animatzea besterik ez da geratzen beraz, zikiro jatea aurreko hura izatera bueltatu dedin.

Etxeberriaren esanetan, etorkizunari begira berdintsu jarraitzeko asmoa daukate. Une honetan 150 bazkide ditu Bilkoin Elkarteak. Zenbaki hori da gainera, finkatuta daukaten topea. Beraz, listan zain dauden 17 lagunek itxaron egin beharko dute piska batean, oraingoz ez baitago lokala handitzeko asmorik.

Josune Amondarain

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadalupe Auzoa

LEGORRETA ☎ 943 80 63 55

M LASA
egurrak

Ondo igaro festak - Zorionak!

☎ 943 80 60 22 - faxa: 943 80 65 56

Beroztegi auzoa LEGORRETA

ARANTXA
TABERNAK

*jai zoriontsuak
opa dizkizue!*

Kale Nagusia LEGORRETA

ARIZPE LANTEGIA

Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta
autogenoan lanak

☎ 943 80 60 98

Eguzki Etxea LEGORRETA

IÑAXI
Tabernak

jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 80 61 20

Nagusia, 8 LEGORRETA

PIKONDO
TABERNA-k

festa zoriontsuak opa dizkizue!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 62 71 **LEGORRETA**

Legorretako jaiak iganderarte

Maiatzaren 20an hasi ziren herriko jaiak eta lagunarteko afariak, trikitilariak, futbola, soka-tira... denetarik izan da. Gelditzen diren 3 egun hauetan, ordea, ekitaldi ugari izango da.

Maiatzak 22, ostirala:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

10:00etatik 13:30era: Haur jolastokia kirol gunean.

14:30etan: Zikiro jatea Bilkoin K.K.E.en, 'Nekaezinak' txarangak alaitua.

15:30etik 18:00etara: Haur jolastokia, kirol gunean.

19:00etan: Haurrentzako Play Back saioa.

23:00etan: Helduentzako Play Back saioa.



Maiatzak 23, larunbata:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:00etatik aurrera: Haur jolasak gaztetxoentzat.

13:00etatik 1:00era: Mozorro eguna.

13:00etan: Txakolin dastaketa 'Nekaezinak' txarangak alaitua.

13:00etan: Herriko XVI. Paella txapelketa. 14:00etan bukatuko da prestaketa.

14:30ean: Lagunarteko herri bazkaria plazan, Txarangak alaitua. Jakia norberak jarri beharko du.

17:30etik 20:00etara: Mendebaldeko arratsalde basatia: malabarak, magoak, hankaluzeak, trikitixa, gizon panpina, buruhandiak, gizon musika eta koardilen desfilea. Aldi berean zurrapotea banatuko da.

23:30etik 1:00era: 'Blue Grass' country taldearekin musika.

1:00etik 5:00ak arte: Zezen mekanikoa pilotalekuan.

1:30ean: Mozorro lehiaketaren sari banaketa.

5:00ak arte: Kalejira 'Nekaezinak' txarangarekin.

Maiatzak 24, igandea:

10:00etan: Diana dultzainariekin.

12:00etan: Buruhandiak herriko 'Eneritz eta Naiara' trikitilariak lagunduta.

13:00etan: Herriko haurren arteko pilota partiduak.

14:30ak arte: Kalejira herriko 'Eneritz eta Naiara' trikitilarien eskutik.

18:00etan: Iparraldeko joakoak: Gipuzkoako selezioa Bizkaikoaren aurka eta 'Intsausti Harria' Euskadiko II. saria.

18:00etan: Kalejira 'Nekaezinak' txarangarekin.

19:30ean: Haur danborrada Txarangak alaituta.

22:30ean: Gizon Pikuaren ehorzketa. Jaiei amaiera on eta "alaia" emateko kandelakin eta lutu arropaz jantzi-ta azaltzea eskatzen da.

eredu S. Coop.

Lorategietarako
eta hondartzarako
altzariak

Diseinuko altzari
modernoak

Jai zoriontsuak denoi!

Ola auzoa,4 **LEGORRETA**

☎ 943 80 61 00 - Faxe: 943 80 63 74



ALTZIBAR LORATEGIA: LORA ETA LANDARE MINTEGIA GABIRIAN

Edorta Atin: "Lorategietarako ez dago dirurik"

Gabirian, Zumarragara bidean, 'Altzibar lorategia' jartzen duen negutegiak ikus daitezke. Edorta Atinenak dira loreak, landareak, zuhaitzak, zuhaixkak... produzitu eta lorategiak apaindu nahi ditu, nahiz eta jakin badakien, lehenengo, goierritarren mentalitatea aldarazi beharko duela, loreei eta lorategiei garrantzia gehiago eman diezaiogun.

Beti gustatu izan zaio Edorta Atin gabiriarrari baserri inguruko belarrak moztu eta lanak egitea. Lorazaintzari ekitea erabaki zuen. Etxe inguruan mintegia jarri zuen lehenengo, zuhaitzak eta



"Jendeak lorazaintzako aldizkariak irakurtzen ditu, baina askotan gure etxeetan ezin izaten ditugu landatu, neguan hemen izotza egiten baitu. Klimaren arabera landareak jarri behar ditugu", dio Edortak.

zuhaixkak produzitzeko. "Mintegi bati epe luzera ateratzen zaio etekina. Eguraldiak ere zerikusi handia dauka. Lehenengo urtean esaterako, harriak dena hondatu zigun". Gauzak honela, negutegiak jarri eta lora munduarekin hasi da. 1.000 m² estali dituzte eta beste 700 bat estaltzen ari dira. Era guztietako landareak hazten dituzte bertan. Momentu honetan, balkoietak loreen garaia da

eta espezie ezberdin ugari dituzte, geranioak alegriak, petuniak, hiedrak...

Lorategiak txukuntzen

Loreen aitzakiarekin, Altzibar lorategian egiten dituzten lanak ezagutzera eman nahi dituzte. Lorategiak txukuntzen eta sortzen ere aritzen baitira. Lehenengo egin zuten lana, Beasaingo Senpere merkatal guneko lorategia txukuntzea izan zen. Dena den, Edorta Atinen esanetan, gai

honetan goierritarren pentsamoldea, europarreganatik oso urruti dago. Estatu Espainiarrean eta Europan oso aurreratuak omen daude gai honetan. "Lorategi gehiago eta balkoiak ere lora gehiago jartzen dituzte. Hemen Euskal Herrian oraindik hasteko dago". Adibide bat jarri digu Edortak: "enpresa bat handitzen inbertsio handiak egiten dituzte baina lorategi eder bat jartzeko proposamenarekin kontratistarengana joatean, berdea jartzea erantzuten du. Lorategiak sortzeko ez da dirurik bideratzen", dio. Gauzak honela, mentalitatea aldatu eta Goierri loraz jantzi nahi du gabiriarrak.

Klima gainera, ona daukagu landareentzako. Baina, "jendeak lorazaintzako aldizkariak irakurtzen ditu, baina askotan gure etxeetan ezin izaten ditugu landatu, neguan hemen izotza egiten baitu. Klimaren arabera landareak jarri behar ditugu", dio gabiriarrak.

ETXEGO

Autoen konponketa orokorra
Direkzio zuzenketa - Gurpil aldaketa
Olio aldaketak, engraseak - Diagnosiak

Hiribarren Atze, 11 ☎ 943 88 45 64
LAZKAO



GESTORIA BIOK

(BANDRES)
ASEGUROAK

**Errenta aitorpenak
egiten dira**

**Goierri, 12
behea**

ORDIZIA

☎ 943 88 44 00
☎ 943 88 12 58



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15

URBITARTE sagardotegia



Erreserba telefonoa
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

OLABERRIA



Belakasoro lursaileko etxebizitzak amaitzeaz dauden honetan, udalak aurrera darabara S-1 sektore berriaren urbanizazio proiektua. Apirilaren 30ean egin zen ohiko udal batzarra eta bertan proiektua aurrera eramatea onartu zen. Honen arabera, gehienez 50 etxebizitza egiteko aukera izango da Kasako auzoan hiru gunek ezber-

tu ahal izango dira, hiru famili bakarreko etxebizitzetara eta beste hiru lursailetan Babes Ofizialeko 4 etxebizitza egin ahal izango dira. Bestetik, bigarren gunean 31 plazako aparkaleku publikoa egingo da eta dena 5.582 metro karratu egongo dira lorategi ezberdinentzat.

Etxe gehiago Kasako auzoan

dinetan. 37.787 metro karratuko hedaduran 23 lursail egoitu dira, horietatik 17 bi familiarako etxebizitzetara egokitu

Baina udalak eginiko azken batzarrean ere beste gai asko ere izan ziren. Hona hemen batzuk:

Udaltzain baten beharra du udalak eta hori dela eta dagoeneko onartu dira postu hori betetzeko oinarriak.

Euskadiko Tiro txapelketa herriko Barruti tiro-zelaian egingo dela jakinarazi zen San Joanak baino lehen.

Jubilatuak Parisen

Herriko zaharrenak, Frantziako hiriburuan izan dira aste honetako lehen hiru egunetan. Horien artean 40 jubilatuta, 9 jubilatuta gabeak eta hiru ez herritarrek Pariseko hainbat leku ospetsu ikusteko parada izan dute hiru egunetan zehar. Bidaia

hau Zaharren Egoitzak antolatuta izan da udalaren laguntzarekin.

Pala txapelketa aurrera

Arkupe Elkarteak antolatutako pala txapelketa aurrera doa. Aurten 9 bikote daude eta hauexek dira: Gari-Aranburu, Iker-Berasategi, Imanol-Aitor, Gorka-Aitor, Etxeberria-Arregi, Asier-Kike, Sarasola-Aierdi, Alonso-Arrondo eta Barandiaran-Auzmendi. Hauetako lau bikotek ekainaren 13 eta 14an jokatu dituzte finalerdia eta finala aldiz ekainaren 20an jokatu da herriko jaietan.

Nagore Goiburu

ALTZAGA

Igandean, maiatzak 24, izango da aurtengo Altzagarateko jaia. Egun osoko festa izango da eta ohi bezala, bertsolari, trikitilari eta aizkolariak izango dira, bazkariarekin batera. Jarrera duzue egitaraua:

12:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Millan Telleria eta Sebastian Lizaso bertsolarien eta Elustondo eta Larrañaga trikitilarien saioak.

14:30ak aldera: Bazkaria bertako tabernan.

18:00etan: Aizkolari saioa: Iñaki Azurmendi eta Asen Urretabizkaia, Olasagastiren aurka. 10 kana erdiko ebaki beharko dituzte.

Ondoren: Jaiari amaiera emateko, Telleria eta Lizaso bertsolarien eta Elustondo eta Larrañaga trikitilarien saioak izango dira.

Pako Zubeldia

Altzagarateko jaiak maiatzaren 24an

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTITAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 943 88 04 15
☎ 943 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

ARRIETA

J A T E T X E A

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

ATAUN


San Isidro arrakastatsua



Joan zen ostiralean herriko baserritarrek festa eguna izan zuten San Gregorion, San Isidroren bueltan, izan ere. Jende asko hurbildu zen bertara, batzuk gauzak ikustera, beste batzuk antolatutako lehiaketa nahiz erakusketetan parte hartzera eta denak han sortutako festa giroaz gozatzera.

Barazki lehiaketan 7 postuk hartu zuten parte; lehenengo saria (20.000 pezeta) Fatima Fonsecak eraman zuen eta bigarrena, berriz (10.000 pezeta), Juanita Aierbek. Aurtengoan, zizen inguruan bazen sari berezi bat (15.000 pezeta) eta hura Migel Arratibelentzat izan zen.

Bestalde, herriko 8 artzaiek beren "arte" erakutsi ziguten gazta berrien erakusketan, dastatzeko aukera ere izan zelarik; baita gazta egiten eta ardiei ilea mozten ikustekoa ere. Gainera, herriko sagardoak eta



trikitixak giroa berotzen lagundu zuten; jakina, eguna giza legez bukatzeko beharrezko bazkaririk ere ez zen falta izan!

Bertso afaria

Datorren ekainaren 5ean, ostiralean, Bittor jatetxean bertso afaria egingo da. 20:30ak inguruan hasiko den afariaren ondoren izango da bertso saioa. Saio honek lau zati edukiko ditu: bat bateko bertsoak, bertso

zaharrak, bertso jarriak eta bertso zaharrak (antzeztuta). Bertso jarriek Atauni buruzkoak izan behar dute eta parte hartu nahi duenak maiatzak 30 baino lehen udaletxean bere asmoaren berri ematea komeni da (ahal balu gaia eta idatzitako bertsoak ere bertan utziz). Izan ere, zenbat herriar animatzen den aurretik jakitea beharrezkoa baita programa zehazteko.

Afarirako txartelak, berriz, Bittor jatetxean bertan jarriko dira salgai 2.500 pezetetan eta horiek eskuratzeko epea ekainaren 3an amaituko da.

Horren guztiaren berri gehiago etxeetan jasoko dugun oharrean izango duzue.

Labur-labur

● Bertso kontuekin jarraitu behar dugu, Gipuzkoako eskolarteko txapelketarekin, hain zuzen. Txapelketa honetan 14 urte bitarteko gaztetxoek hartzen dute parte eta hor dabilta lau ataundar ere: Oier Zurutuza, Haitz Aierbe, Iban Urdangarin eta Aitzol Munduate; boskarrena, berriz, Irati Goikoetxea beasaindarra da. Boskote honek maiatzan 15ean izan zuen 3. saioa Urretxun eta 22an 4.a edukiko du. Euren asmoa 29an Orion egingo den finalera iristea da. Animo!


● Bertsoak hizpide oraingoan ere: Iban Urdangarin herriarrek Azkoitiako Xabier Munibe bertso-paper lehiaketa irabazi du, derri gorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko kategorian (7. eta 8. mailak). Zorionak!

● Areto futboleko, Ataun Urbietak lehen postuan segitzen du. 2 jardunaldi baino ez dira geratzen eta hirugarrena 3 puntura dago. Gauzak horrela, aukera asko du mailaz igotzeko, 2 lehenak igotzen baitira.

● Maiatzak 22an, arratsalde partez (14:00-16:00 bitartean) pelota eguna ospatuko da eskolan. Atsedean garaiko pelota txapelketako finalak jokatuko dira (benjamin eta alebin neska-mutilen mailetan) eta bestelako jokoak ere izango dira.

● IV. Ataun aztergai beka deialdira lan bakarra aurkeztu da, Maximo Aierberen 'Ataungo kanta zaharrak' izenekoa. Lanaren helburua gure herriko kantak berreskuratzea da: eske kantak, sehaska kantak, haur eta jolas kantak, taberna girokoak... 200.000 pezetako beka saria izango du horretarako.

Josune Aldabe



Nagusia, z/g.

ondoeta

Tfnoa.: 943 883102. Faxe: 943 880872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

SEGURA

1916ko bandoa euskaraz

Hizkuntza Politikarako Sai-lordetzak, 'Euskararen Berri-rapena' aldizkariko azken alean, mende hasierako Segurako bando baten berri dakar bitxikeria modura. Aintzinasunari dagokionez aparteko garrantzirik ez badu ere, euskara oso txukunean idatzia egotea da deigarria aldizkariak dioenez. Hona zati bat: "Parzoneriko juntak erabakidu bideak berritzea juandan urteko eran. Orretarako, garoa ekartzen duten guztiak bearko dute joan lanera datorren asteartean goizeko zortzietarako, eramanaz bakoitzak pikachoya edo achurra eta peazaya. Idiazabalgoak eta Ursuangoak juango dira Echegaratera eta gañerakoak Otzaurtera. Juaten ez diranen izenak artuko dira eta ezin garorik ekarriko dute nola eta bost peseta pagatzen ez duten..."

Joxe Mari Telleriaren erakusketa

Maiatzaren 16an inauguratuta ekainaren 17ra arte egongo da zabalik J.M. Telleriaren pintura erakusketa Andoaingo Ayerbe arte galerian (Nagusia,1). Musika eta pinturaren arteko erlazioa gaitzat hartuta, tamaina ezberdinetako 18 lan izango dira ikusgai.

Kirol eskolarra

Atletismoan Gipuzkoako txapeldun geratu zen Iker Agirrezabal, mutil infantiletako 80 metroko proban, maiatzaren 16an Oñatin. **Mendi irteera:** maiatzaren 31n, goizeko 8,30etan plaza-tik irtenda Aizkorriira joango dira. Asteburu honetan gainera, teniseko, atletismoko eta areto futboleko saioak izango dituzte.

Paotxa loretan dago Aizkoeta-berrin



Joxek abuztuaren 23an erein zuen paotxa. Apirilean ez zuen ebaki eta San Joanak alderako, keizekin batera, espero du hazia jasotzea.

Garai batean baserri gehienetan izaten zen belarra da. Izateko, ordea, erein egin behar da eta fruitualdi edo ebakialdi bakarra du. Honi, baserrietan ganadua urritu izana gehitu behar zaio gaur egun ia inon ere ez ikustearren arrazoia aurkitzeko. Joxe Insaustik, kapritxoz ereinda, oraintxe du loratua belar saila. Berak dioenez, 1965 aldera hasita utzi zitzaion paotxa ereiteari inguru hauetan. Abuztu aldera hazia bo-

tata, apirilaren hasiera aldera ebaki ohi zen ganaduari emateko. Hazitarakoa, loretzen edo burutzen utzi behar izaten zen, *keizea* (gerezia) heltzearekin batera jasotzeko ('*keizea* goiz, paotxa goiz; *keizea* berandu, paotxa berandu').

tata, apirilaren hasiera aldera ebaki ohi zen ganaduari emateko. Hazitarakoa, loretzen edo burutzen utzi behar izaten zen, *keizea* (gerezia) heltzearekin batera jasotzeko ('*keizea* goiz, paotxa goiz; *keizea* berandu, paotxa berandu').

Oso apreziatua

Paotx belarra ez zegoen igartzerik baina berdea edozein ganadurentzat erabili ohi zen. Estimazio izugarrikoa, elikagai handia izateaz gain, ikaragarri gustokoa zuten abereek. 'Paotxa' hitza baserri giroko hizkuntzan oso erabilia zen, batik bat konparazioetan, izugarri gauza ona adierazteko: '*Pa-*

otxen oittue dek ori' (ondo ohitua), '*Ortzeok paotxa or!*' (aukera ona), '*Ortik etzeok paotxik*' (benefiziorik ez)...

Kapritxoz egina

Joxe, bertsolaria izanik, Urbian ziren batean, 'paotxa' hitza erabili zuen konparazio modura bertsotan. Ingarukoek ez zioten nondik-norakorik hartu bertsoari. Ez zuen inork hitz horren berririk. Halaxe bururatu eta sekula gorritu gabeko '*Soro-zar*' izeneko etxe ondoko zelaiaren erein zuen paotxa Joxek.

Orain 5 urte garia

Inguru hauetan garia helduko zela eta ez zela, tabernako eztabaida baten ondoren, garia ere erein zuten insautitarrek. 500en bat metroko saila, zainketa berezirik gabe etorri zen eta 1993ko uztailaren 3an, antigualeko erara, *ittaiez*, ebaki zuten.

Futbola

Infantilek Gipuzkoako oho-rezko mailara igotzea lortu

dute 4. egin ondoren. Erre-jionalek aurreko astean amaitu zuten 8. eginez.

Asteburuko emaitzak: In-



Santa Barbarako eguna

Asentzio eguna maiatzaren 21ean bada ere, 24an ospatuko da 728 m dituen Haitz-lehorko Santa Barbararen ermittan. Kortaberriarrek txukundua emana diote ermittari eta inguruari. Kafea eta hamaiketakoa traktorean igoak izango dituzte lehengo herritarrek iristen direnerako. Jendea ailegatu ahala kafea, gailetak eta anixa izango dute pronto. Errito nagusia meza aurretik egingo da: ixipu modura bertako 31 pagoetako adar bat erabiliz, lurak, abereak eta etxeak bedeinkatuko dira lau haizetara. 9:00etan meza emango da eta ondoren Udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketakoa.

fantilak: Gure Txokoa 2-3 Aizkorri. **Kadeteak:** Urola 3-0 Aizkorri. **Jubenilak:** Segura 1-0 Zumaiako.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Ordizia. Zapatuan, 11:00etan.

Labur-labur

● **Presoen aldeko musa:** presoak euskalerriratzeko taldeak antolatuta, Elorripen maiatzaren 30ean, 15:30ean hasita. Bikoteko 1.000 pezeta. Guztientzat izango dira sariak.

● **Aterpetxea:** aurtan ere ingeleseko ikastaroak izango dira udan. 14tik 17 urte artekoentzat uztailako 2 hamabostaldia eta abuztuko 2garrena. 18tik 29 urte artekoak abuztuko 1go hamabostaldia. Izenak Foru Aldundian eman behar dira maiatzaren 26a baino lehen.

IDIAZABAL

Barianteko lanak martxa onean



Benta Txiki inguruak itxura honekin daude.

Bariantea bikoizteko lanak martxa onean doaz eta aurtengo urtea bukatu aurretik lanik handienak eginda egongo dira. Bikoizketa egiteko obrek orain arteko erritmoari eusten badiote epea baino lehen egongo dira bukatuta bigarren fasean egin beharreko lanak.

Lan horiek bukatu aurretik Etxegarateko bikoizketa hasiko da. Datoren udazkenean esleitu edo adjudikatuko dira Etxegarateko errepideko lanak Antton Jaime Gipuzkoako Diputazioko

Errepide eta Garraio diputatuak agindu duenez. Bikoizketarako proiektua jende aurrean erakutsi da dagoeneko eta orain alegazioak egiteko epea zabaldu da ekaina bitartean. Idiazabalgo udalak hainbat alegazio aurkeztu du. Antton Irizar alkatearen esanetan, "gehienak mendiko pistetara joateko loturei buruzkoak dira. Etxegarate atsedenerako gune bihurtzea ere eskatu dugu, era berean Etxegarateko baserrietatik herri-
ra joateko bide egokia egotea nahi dugu". Alega-

zioen txanda bukatutakoan Eusko Jaurlaritzak errepide berriak ingurugiroan duen eragina aztertu eta onartu egin beharko du.

Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataformak gogo onez hartu du Diputazioaren konprometua, hala ere lanean jarraitzeko asmoa dute. Idiazabalgo alkatearen esanetan, "Diputazioak bete beharreko pausu guztiak gertutik jarraitu behar ditugu. Beste zeregin bat ere badugu, Nafarroako agintariek beraiei dagokien errepide zatia ahalik eta azkarren bikoiztu dadin nahi dugu". Plataformaren helburua Gipuzkoako errepide zatia eta Nafarroako egun berea inauguratzea da.

Mendi lehiaketa

Ekainaren 14an, Eskolarteko XI. Mendi lehiaketaren finalista eguna ospatuko da Idiazabalen. Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutil guztien elkargunea izango da Idiazabal.

Goizean mendi ibilaldia egingo dute herriko mendietan barrena eta arratsaldean Goierri ezagutzeko aukera izango dute.



Kultur astea

Ekainaren 14tik 20ra bitartean egingo da aurtengo kultur astea. Egitaraua erabat zehaztu gabe dagoen arren, ekainaren 20an Igarondo pilotalekuan Oskorri taldearen kontzertua izango dela jakinarazi dute.

Hitzaldiek, ikusentzutekoek eta mus txapelketa batek osatuko dute aurtengo kultur astea.

Xabier Urteaga



943 88 55 00 ORDIZIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



"Eko garbi ilargia bezain garbi"

943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

SERIOITASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak

AUSO EGI

Urdaneta, 41

Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA



ZEGAMA



Datorren maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean egingo da Zegamatik Arantzazuraino-ko peregrinazioa. Urtero bezala udalak autobus zerbitzua jarriko du herritarrentzat.

Maiatzaren 31n, igande goizean, bi autobusaldi izango dira Apeaderoraino; bata goizeko 8etan, eta bestea 10etan. Igande iluntzean, 8etan Arantzazutik autobusa izango da, berriro Zegamara itzuli beharrean dauden herritarrentzat, era honetara aurreko egunean norberaren kotxea eraman beharrik ez du izaten askok eta askok.

Astelehenean, goizean goizeko 8etan abiatuko da autobusa Arantzazurantz eta Arantzazutik Zegamarantz arratsaldeko 4,30etan.

Igande goizeko autobuserako izan ezik, gainerako guztietarako txartela har-

tzea behar-beharrezkoa da, era honetara, udalak, beharrezkoak diren autobusak bakarrik kontratatzen baititu. Txartelak hartzeko epea, maiatzaren 25etik 29ko eguerdiko ordu bata arte izango da.

Maiatzaren 29ko eguerdiko ordu batetik ordu bietara tokirik gelditzen bada, Zegaman erroldatu gabe daudenentzat banatuko dira txartelak leihatilan.

Kuba ikusentzunezkoa

Datorren maiatzaren 28an, osteguna, Xabier Albisturaren Kuba izenburudun ikusentzunezkoa izango dugu Kultur Etxeko Areto Nagusian, iluntzeko 8,30etan.

Liburutegiko kuota

Datorren ekainaren 12ra arte dago irekita Udal liburutegiko 1998ko kuota ordaintzeko epea. Gogoratu, kuota hau ordaintzeak aldiko 2 liburu 15 egunerako ateratzeko baimena ematen duela. Datozen oporraldietarako aukera ezin hobea!

San Bartolome jaiak

Gaur, ostirala, maiatzak 22, arratsaldeko 5,30etan 2. biler irekia burutuko da udal-letxeko Batzar Aretoan, azken xehetasunak lotuak izan daitezen.

Edurne Albizu

ORMAIZTEGI

Jubilatuen irteera Castejon aldera

Jubilatuen egoitzak datorren maiatzaren 29rako egun baterako irteera prestatu du Castejonera. Ormaiztegitik irteera goizeko 8etan egingo da. Ondoren Cascantera abiatuko dira bertan ardo bodega bat ikus- teko asmoz.

Goizeko egitaraua bukatu ondoren, 14:30ak aldera, Hotel Villa de Castejon deritzan jatetxean bazkalduko dute. Bazkal ondorenean nahi dutenek Castejongo jubilatuek prestatu duten tren



museo bitxia ikusteko aukera izango dute.

Irteera honetara joan nahi duzuenok, izena maiatzaren 23ra arte eman dezakezue elkartean bertan. Bidaia salneurria 3.000 pezetakoa da.

Herriko postalak salgai

Udalak herriko bi postal argitaratu ditu. Berauetariko bat Ormaiztegiko bistei dagokiena da. Bestea, berriz, tren zubi zaharrari buruzkoa. Udalak herriko sendi guztietara postal bakoitzetik bana banatu ditu. Dena den, beste postalen bat nahi izanez gero, udaletxean eta liburutegian salgai aurkitzen dira 50 pezetan.

Zilarrezko orratza galdu da

Lehenengo maiatzaren 16an, larunbata, herriko bidegurutze eta frontoi zaharraren artean herritar bati erropan jantzirik zeraman zilarrezko orratz bat galdu zitzaion. Orratzak tximeleta baten irudia du eta hainbat harri bitxiz apaindurik dago. Galdu duen herritarrentzako balio berezia duenez, norbaitek aurkituko balu neroni entregatzea eskatzen diogu (943 88 09 98).

Aitziber Murua

KUBIA

AU-PAIR
 FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBetari
 INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
 LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN
 Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
 Tel-Faxa: 943 43 15 48

CGZ GOIERRI
 Ikerketaren Zentrua
 Gida-agiri eta arma baimenetarako ikerketak
 Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.
 Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.
 Garagarza Pl. 10 © 943 888734 ORDIZIA

KEMEN KIROLAK

 Zumalakarregi, 1
 ☎ 943 88 51 68
 ORMAIZTEGI

ORDIZIA

Martxan dira Poltsikoko ikuskizunen prograko ekitaldiak. Aitor Furundarena ordiziarraren Patxi Kaleko taldea izan zen joan zen ostiralean, eta oraingoan beste ordiziar baten txanda da. Pello Ramirez eta Luis Gilen taldearen eskutik kafe-kontzertua izango da Barrenan, gaueko 10,30etan. Kitarra eta biolontxelo musikaren tresnekin errepertorio anitza eskaintzen dute, kutsu intimistarekin.

Maiatzaren 29an, Pilar Guerra, Ritxar Zumalabe eta Xebe Diezek 'la cebra enamorada' eta 'Contigo en la distancia' lanak aurkeztuko dituzte kafe-antzerkiko saio bikoitzean. Lehenengo lanak buruko arazoak dituen gaixo bat aurkeztu digu, bera zaintzen duen psikiatra batek hainbat lokal publiko ikusten ditu gaixo hori gizarteratzeko saiakera bat eginez. Lan honek Logroñoko kafe-antzerkiko lehiaketan saria jaso zuen, baita aktore hoberenarena ere. Ekitaldi hau ere 22:30ean izango da, Barrenan.

Poltsikoko ikuskizunak Barrenan



Idiazabal gaztaren aurkezpena

Maiatzaren 6an, udaletxean, aurkeztu zen aurtengo Idiazabal gazta berria. Jose Juan Castillo sukaldariak izan zuen gazta ebakitzeko ohorea. Ebakitzearen ondoren, Manuel Arroyo zientzia gizona omendu zuten Idiazabal Gaztaren kofradiakoek.

Azoka berezia izan zen maiatzaren 6koa. Gazta berriaren inaugurazioaz gain, transhumantzia berreskuratu baitzuen Ordiziak. Hain zuzen ere, 2.000 bat ardi herriko kaleetatik pasatu ziren, Aralarko larreetara joan aurretik, garai batean egiten zen bezalaxe.

Maiatzaren 11n, bestalde, Athleticek 100. urterrena dela eta, Bilbon aurkeztu zuten Idiazabal gazta. Aurkezpen honen bidez,

Bizkaian Idiazabal izena daraman gazta promozionatu nahi da.

Értaroko azoka

Joan zen asteburuan, maiatzak 16 eta 17, ertarora itzuli zen Ordizia, ertaroko azokari esker. Eguraldi ona tarteko, jende asko ibili zen bertan. Ertaroko afaria ere arrakastatsua izan zen eta lehenengo aldiz, Barrena jauregian egin zen.

Hurrengo azoka berezia, ekainaren bigarren asteburuan egingo da. Mugazgaindiko azokaren txanda izango da orduan.



Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa

Argi-Berri elkarteak VII. Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketa antolatu du. 3 mailatan banatu dute: 13 urte bitartekoa, gutxienez 6 eta gehienez 8 bertso aurkeztu behar dira, eta gaia, 'Marrazki bizidunak' izango da; 14-18 bitartekoa eta 1979. urtean edo aurretik jaiotakoa. Azken bi maila hauetan, gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso egin beharko dira eta gaia librea izango dute.

Uztailaren 1a aurretik bidali behar dira lanak Argi-Berri elkartera (Ordiziako Gipuzkoa kaleko 15.ena). Sariak: gaztetxoetan irabazleak 20.000 pezeta; gazteetan 30.000; eta helduetan 50.000 pezeta.

Garbitasunak
OXEPI
☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA

IBAI-ONDO
ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK
Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

ZALBIDE
SAGARDOTEGIA
Txitxarro eta sardinak parrilan
☎ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

MUJKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



PUB
XUBER

*Loinazko Festak ospatzen
Xuber zuekin!*

Zaldizurreta z/g BEASAIN

ETXEBE TABERNA



Festa onak pasa!

Zaldizurreta kalea
BEASAIN

ARRANO TABERNA


Pintxo eta ogitartekoak



*Jaietan ere preso eta
iheslariak gogoan*

Nagusia, 12
BEASAIN

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

KOIOLE
KOIOLE



*"Mejunjea
dago"*

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN

Etxezarreta kalea
ORDIZIA



TXINDOKI

LOGOS

altzarien banatzaile ofiziala

Sukalde eta bainuko altzariak

Jai zoriontsuak denoi!

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)

☎ 943 88 03 98

BEASAIN

'GURE BARRIOA 1975' ELEBERRIA KALERATU DU XABIER MENDIGURENEK

Beasaingo hilerri zaharreko auzoan kokatua dago liburua

Xabier Mendiguren idazle beasaindarrak "Gure barria 1975" eleberria kaleratu berri du. Beasaingo kanposantu zaharreko auzunean, orain Indarreko auzunea den tokian oinarritu da, bere haurtzaroko oroitzapenak kontatzeko. Bertako koadrilaren kontuen inguruan aritu da liburuan.

"Haurtzaroak beti du li-lura bat, denok gogoratzen ditugu gustoz umetako oroitzapenak, eta ni idazle naizen aldetik hortaz idazteko gogoa aspalditik neukan, beldur nintzen ordea nik kontatutako gauzak ez ote ziren beste batzuenat aspergarri izango", dio Mendigurenek. Izan ere eleberri hau, auzune zehatz bateko kontakizunak osatzen dute. Andoni Egaña bertsolariak idatzia da hitzaurrea, eta berak dioenez, irakurlea segituan geldituko da kateatuta liburuarekin. Alde batetik berdintasunak bilatuko ditu, hau niri ere pasatu zait esango du orduan, eta bestalde ezberdintasunak bilatzen dituenean, hori ere pasatu al zaio? esango du. Honen irakurlearekiko sinpatia lortzen du. Beraz, ez da

auzokoa izan behar liburu ulertzeko.

"Liburu honetan nire haurtzaroa kontatu dut azken batean, baina ez dut kontatu lehen pertsonan, muti kuadrila izango litzateke protagonista, ni nintzen haur hura beste haurrekin urtu dut". Umeen jolasak, futbolearen nola ibiltzen ziren, bizikleta karre-rak, txapak, txabolak egitea eta beste hainbat jolas dira liburuaren lehen zatiko ardatza. "Oroitzapenetan oinarritu naiz idazteko orduan, asko dago beraz gertatu zenetik, baina era berean baita asmatutik ere. Nire oroimen ahulean zegoena irudimenarekin osatu dut. Gainera ez nuen oroitzapenen liburu bat soilik idatzi nahi, nobelatxo bat baizik. Pertsonaia gehienak bai, errealak dira, baina izenak aldatu egin dizkiet, helduen izenak bakarrik mantendu ditut", azaldu digu Mendigurenek. Liburuaren bigarren zatia, nesken mundua deskubritzen hasten direnekoa izango litzateke. "Gu beti mutilak ibiltzen ginen barriaan jolasten, eta neskak aparte xamar ikusten genituen, beste mundu bat zen guretzat". Hirugarren zatia berriz, 1975. urteak osatuko luke, barrioz kanpo-ko mundua deskubritzen hasten direnekoa. "Kanpoan



barriaan Ocañaren aldekoak, eta berdin gertatzen zen futbolearen ere. Kontzientzia politikoa hartzen hasi ginen konturatu ginen kontua ez zela nongoa zen bat edo zein abizen zituen, baizik eta lur hau sentitzen ote zuen ala ez".

Beasaingo kanposantu zaharreko auzunea,

orain Indarreko auzunea dena da Xabier Mendiguren Elizegiren barria. Itxura aldetik aldaketa erabatekoa izan da, lehen hilerria zegoen lekuan parkea egin dute, baserri batzuk ere falta dira eta etxe berri asko egin dituzte. Giro aldetik ere ezin esan lehengoa denik. Gaur egun, harreman sareak eskolak berak ematen ditu; kirol ekintzak direla, ingelesa dela, musikako ikasketak... eskolako lagunak egiten dira txikitatik. "Garai hartan, gurea bezelako beste herri askotan, harreman sareak barriaok osatzen zuen. Eskola desberdinetara joaten baginen ere, eskolatik bueltan, barriokoak elkarrekin jolasteko arratsalde osoa izaten genuen. Beti kalean ibiltzen ginen jolasean, trafikoko gutxiago baitzegoen orduan, gaur egun hori erabat aldatua dago. Gu txikiak ginen, paradisu bezala bizi ginen".

Nekane Altuna

zerbait bazegoela konturatzen hasi ginen, politika eta historia orduan hasi ginen jabetzen. Garai hartakoak dira nire lehendabiziko oroitzapenak: Txiki eta Otaegiren fusilamendua eta aurreko protestak, Francoren heriotza, Koldo Lopez de Gereñu, gure auzoko bat hil zuten guardia zibilek ihesi zihola".

Hizkuntza

Oso euskara sinplean idatzia dago liburuak, "nahita idatzi dut horrela, haur garaiko gauzak zirenez, horrela kontatzea egoki iruditu zait". Dena den, beraien artean gaztelaraz hitzegiten zutela aitortu digu. "Beasainen euskaraz egiteko ohiturarik ez zen, erderaz aritzen ginen, berez ateratzen zitzaigun, baina bagenekien nor zen euskalduna eta nor ez, eta orduan modu arrazista xamarrean jokatzeko genuen gutasuna azpimarratu ari naiz. Txirrindularitzan esate baterako, gu KAS-en aldekoak ginen, eta baziren ba-

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

UNANUE
UME JANTZIAK

Puerikultura

Nafarroa Etorbidea, 4
Tfnua.: 943 88 71 94
BEASAIN

GEMA
OINETAKOAK

Jai zoriontsuak !

Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 943 88 94 45 BEASAIN

Zaldi-lehiaketa, heziketa eta jauziak, Beasainen

Igartza atzeko zelaian izango da, maiatzaren 31n, hunter modalitatean, hau da: zaldien hezieta (doma) eta jauziak. Alarpe zalditegikoek antolatzen dute froga eta EAEko txapelketarako baliagarria da. Lidia Soto, ekitazio kirol teknikaria, bertako arduraduna da eta berak azaldu digu lehiaketaren berri.

Oso gustora daude Alarpekoak Beasainen duten aukerarekin. Hasieran zalditegian bertan egiteko asmoa zuten baina berotze pistarik ez zutenez, Beasaingo udalarengana jo zuten eta asko gustatu zitzaien ideia. 30 zaldi inguru espero dituzte, Euskal Autonomi Erkidego mailakoak.

Lehenengo aldia da herri barruan egiten dena, klube-ko instalakuntzetatik kanpo. "Honekin erakutsi nahi dugu, mundu guztiaren esku dagoela, hipika ez dela eli-



Ane, Jon, Aitor eta Maialen Murua gabiriarrak, Tracy Ann Fleming zaldibitarra, Rakel Auzmendi ordiziarra eta Estitxu Zaldia beasaingarra izango dira Goierriko ordezkariak Beasaingo lehiaketan.

tista. Hemen parte hartuko duten gehienak eskolaumeak dira. Momentu honetan lehiaketa honela dago antolatuta edozeinek parte hartuko baitu, oinarritzko tituloa atera berri duten eskolaumeak edo ekitazio kirol teknikariak. Baina jendeak hori badaki, ederki pasatzen du, lehiaketa ezagutuz doa...", dio Lidiak.

Bi altura egongo dira. Batzuk 1,80 metrotan lehiatuko dute eta beste batzuk, berriz, metro batean. Hori ez da adinaren arabera erabakitzen, bakoitzaren trebezia-

ren arabera baizik. 8 oztopoko ibilbidea izango da eta denborak ez du kontatzen, "hau didaktikoagoa da eta egin beharreko ariketa batzuk dituzte. Epaileak lehiaketa hasi baino zerbait lehenago azaltzen dio partehartzaileari zer ibilbide eta zer ariketa egin beharko dituen. Baloratzen dena zera da: zaldunaren trebetasuna, zaldiarekin daraman bulkada, zaldiaren mugimenduen erregularitasuna, hau da, hipika ona", azaldu digu Lidiak. Zaldia ondo zainduta eta txukun aurkezteak ere puntuatzen du.

Bi pista izango dira, beroketakoan oztopo bakar bat egongo da. Zaldi bat lehizatzen ari denean hurrengoa berotzen aritu baharko da.

Euskadiko hunter zirkuituan 8 proba izaten dira. Gehienak Bizkaian, "hau daude aurreratuenak, hemen hasi berriak gara. Kirol eskolarraren bidetik ari da irekitzen, gurasoak umeak ikustera etortzen dira eta beraiek geratzen dira".

Eskola-ume asko

Eskola-umeak asko ibiltzen dira zalditegian, teorika eta praktika erakusten zaie. Jende heldua ere asko izaten dute batez ere irteerak egiteko, asteburuetan. "Hemen jende gehienak bere base-rria edo terrenoa duenez, zalditegian ikasi ondoren, gustoko badu, bere zaldia erosi eta berak edukitzen dute", dio Alarpekoak. "Federazio mailan klub bezala funtzionatu beharra dauka-gu, baina, ez da klub bat, edozein etor liteke, ez dago bazkide izan beharrik. Hori seguroa, informazioa eta beste zenbait abantail lortzeko egiten da".

JVLKI
GOZODENDA
Jai zoriontsuak!
Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19
☎ 943 88 82 37 BEASAIN

LOPETEGI
AUTO ESKOLA
GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK
Igartetxe, 2 ☎ 943 88 21 74
Oria Kalea, 14 ☎ 943 65 11 17
BEASAIN
TOLOSA



Garmendia
Bitxitegiak
jai zoriontsuak opa dizkuzue
Kale Nagusia, 18
☎ 943 88 15 32 BEASAIN

Legorretako 'Intsausti Harria'-ren 2. txapelketa

Iazko Legorretako jaietan txapelketa berezia izan zen: Intsausti Harria lehiaketa. 100 kilo ditu kono itxurako harri honek, eta 80 kiloz azpiko harrijasotzaileentzako txapelketa da. Maiatzaren 24an, arratsaldeko 6etan, Legorretako pilotalekuan izango da bigarren edizioa.

Brinkolakoa den Mikel Azarola duela bi urte etorri zen Legorretara bizitzera. Eta iaz bera izan zen hain zuzen ere, legorretar zaharrenek oraindik ere gogoratzen zuten ohitura berreskuratu zuena.

Herri-kiroletan zaletua eta herri-kiroletako Gipuzkoako Federazioko kide eta epaile da Azarola. Eta iazko urtarrean Euskal Herriko sokatira txapelketa antolatu zuen Legorretan eta orduan hasi zitzaizkion herriko zaharrenak, herrian harri berezi bat bazela esanez. Intsausti tabernan zegoela ja-

kin eta bilatzen hasi zen. Zikin-zikin eginda aurkitu zuen. Garbitu eta 100 kiloko harria lehiatzeko prest jarri zuten. "Herria ahaztuta zegoen harri honetaz. Intsausti tabernakoek bazeukaten harriaren berri. Harri hau bertako nagusi zenak ekarri zuen etxe hartara, gerra aurretik. Nondik ez dakite. Batik bat asteburuetan baserritarrak Tolosako peritik etorri, tabernan afaria edo merienda egin, eta piska bat berotzen zirenean harri horrekin jarduten omen ziren tabernan", dio Mikelek.

Gizon eta harri txikiak

Harrijasotzaileei buruz ari garenean, Perurena eta Saralegi bezalako gizon handiak etortzen zaizkigu burura, harri handiekin aritzen direnak. Hala ere, Azarolak jakitera eman digunez, ba da beste maila edo kategoriatik bat, 80 kiloz azpiko harrijasotzaileena. "Lehen indar gehiago zuen maila honetara. Gaur egun ez da auzia izaten hainbeste gizon txikiak harri txikia jasotzea". Intsausti harria lehiaketa honetan, beraz, 80 kiloz az-

p i k o harrijasotzaileek hartzen dute parte. Hiru minutuko bi txandatan aritu beharko dira lanean, nork altxaldi gehiago egin. Harriarekin harremantetan jartzeko saio bakoitzaren aurretik, bina minutuko tartea izango dute. Iaz bost lehiakide aurkeztu ziren eta Lasarteko Luis Mari Telleriak irabazi zuen, 57 altxaldirekin.

Harri berezia da: kono itxurakoa da, 100 kilokoa eta azpi-azpian bi helduleku dauzka. "Pisu dena azpitik atera behar da harri honetara. Guk ezagutzen ditugun harriek, eskulekuak izaten dituzte, harriaren erdi partean", dio Azarolak.

Mikel Azarola: "Harriak badu inguru bat manipulatu izan dela dirudiena. Baina ez dago ziurtatzerik. Bere gurutzea eta ohitura zaharrak mantentzen dituen ezaugarri guztiak dauzka".



Iparraldeko jokoak

Intsausti harriaren txapelketa bukatu ondoren, leku berean, Iparraldeko jokoen lehia izango da, Gipuzkoako eta Bizkaiko selekzioen artean. 7 proba egin beharko dituzte: lastoa altxatzea, lokotx biltzea, ingudea, gurdia mugitzea, trontza, txinga eramatea eta zaku lasterketa. Trontzako bikoteak, gizon eta emakumeak osatua izan daitezten saiatuko da Mikel Azarola, eta txinga eramango duena ere, emakumezkoa izan dadila.

GOIHERRI, S.A.
PAPERAREN MANIPULAKETA

'Jai zorientsuak denoi'

San Migel, 7
Tfnoa.: 943 80 61 90
LEGORRETA

GUADALUPE
JATETXEA

Festak ondo igaro!

Guadalupe auzoa
☎ 943 80 63 85 LEGORRETA

Sagardotegia
 **aulia**

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



1963ko IV. ibilaldi neurtua Beasainen

1963. urteko argazkia dugu, Karmen Arsuagak utzi diguna. Beasainen egin zen IV. ibilaldi neurtuko irabazleak azaltzen dira bertan. Ormaiztegi, Lierni, Aztiri eta Seguratik buelta egin beharra izan omen zuten. Joxe Mari Arrondok lagundu digu jendea ezagutzen.

Zutik, ezkerretik eskubira: Andoni Sarriegi, Fermin Hernandez, Benjamin Esnaola, Arantxa Esnaola, Karmen Arsuaga eta Joxe Mari Arrondo.

Makurtuta: Joxe Mari Mujika, Joakin Aldabe eta Lorenzo Larrea.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Jai zoriontsuak!

☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN



BERRIZ ARANBURU

*Jai
zoriontsuak
denoi!*

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00



*Jai
zoriontsuak
denoi!*

MARIAN LARREA

BARNE DEKORAZIOA

- ✕ ERREFORMAK
- ✕ PROIEKTUAK
- ✕ ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79

Oriamendi, 30 BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

Alpe

MASTER
CADENA

SUKALDEAK

SUKALDEKO ALTZARI
ETA
ELEKTRAGAILUAK



Zatoz gure erakusketa ikustera!

- Ordenagailuz diseinatu eta geuk montatuko dugu zure sukaldea.
- Formika eta haritz zura kolore aukera handiarekin.
- 5 urteko garantia
- Elektragailuak

Salmenta eta erakusketa

MARIARATZ, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Guztitan aurreratuko duzu **Kalitatean** ezik



7 atoz